



RAFA GORROTXATEGI-REN ERARA

Rafa Gorrotxategi, Gorrotxategi Familiaren hirugarren belaunaldia da.

Rafa Gorrotxategi, Gorrotxategi Familiaren hirugarren belaunaldia da. Bere haurtzarotik labeen eta gozogintza-tresnen artean bizi izan da. Rafa Gorrotxategi-ren etapa berri hau aurrera pausu haundi bat da, bai kalitatean eta bai berrikuntzan. Produktu berriekin harritu egingo gaitu eta uztartze berri hauekin, artisau gozogintza, goi-mailetarako gastronomiara eraman nahi du.



RAFA
GORRO
TXATEGI

1680

TOLOSAN SALGAI:
OBRADOREA: USABAL POLIGONOA., 14

943 89 03 06
www.rafagorrotxategi.eus

Deshobiratzeaz

Zortzi hamarkada luze igaro dira Espainiako gerra bukatu zenetik, eta lau hamarkada pasatxo Frankismoa delakoa, diktadorearekin batera betiko hil behar zenetik. Mende erdia igaro da errepresio bortitza Euskal Herria herri hedatu zenetik, eta 40 urte borobil hauteskunde demokratikoak burutu eta lehen udalbatzak aukeratu zirenetik. Urteurrenak urteurren, denbora aurrera egin badu ere, argiak itzalgune asko ere badi-tuela adierazi du 2019 honek. Frankismoaren itzal luzea presente da oraindik.

Carlos Hernandez ikerlariak *Los campos de concentración de Franco* liburuan Tolosako zezen plazan kontzentrazio esparrua izan zela eman du jakitera, bertan gertatutakoa “plaka ziztrin” batean ere ageri ez bada ere. Errepresaliatu politikoak bertan egin behar izan zuten lan eta baita, besteak beste, Erorien Haranean ere. Madrilen daude, hain zuzen, Lucas Ugarte Plazaren gorpuzkiak. Familia atez ate aritu da 2019an ere, Ugarte Plazaren gorpuzkiak Tolosako hilerria ekartzeko.

Urteak ekarritako gertakarien artean, Frankismoaren azarnatik gertu, Jose Arana Irastorza gudariaren omenez Donostiako Polloe hilerrian jarrita zegoen plaka lapurtu izana. Bestalde, historia deshobiratzen jarraitu dute aurtengoan ere Aranzadi zientzia elkartearen auzo-landegiek, Saseta Defentsa Sistema ikertuz eta 36ko gerra garaiako lubakietan indusketa lanak egiten.

Gainera, alegiarrak memoria arakatzeko lanetan murgildu eta martxoan *Alegia, 1936-1945. Giza eskubi-deen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan* aurkeztu zuten. Beste liburu batek, gor-

dinki gogoratu ditu «miaketak, atxiloketa masiboak, erbesteratzeak eta tortura-kasuak»: 1968. Gipuzkoa salbuespen egoeran. Bertan jasotzen dira gordinki Tolosaldeko hainbat herritarrek jasotako gehiegikeriak: Julia Alijostesek, Eduardo Osak, Eugenia Sarasolak eta Inazio Aranaldek.

Gehiegikeriak gehiegikeria, errepresioak jarraitu zuela zalantzarik ez, eta 1975 eta 1978 artean Tolosako Guardia Zibilaren kuartelean torturatu egin zituztelako, aurtan, salaketa jarri dute Tolosako epaitegian Jokin Sarasolak, Jon Goñik, Josetxo Zabaletak, Elixabete Nosellasek, Juan Arangoak eta Joxe Ramon Begiristainek.

Gauzak honela, justiziarik ez, minak erreparatzeke eta egia batzuk argira ateratzeko dauden honetan, 2019. urte-karia irekiko duen gaiak ezinbestean Frankismoa behar zuen. Frankismoak utzitakoak oraindik orain deshobiratze dagokiolarako bai ordezkari politikoei, bai gizarteari eta baita komunikabideoi ere.

Deshobiratze lan horretan, hondarretik ateratze horretan, 2019ak utzitako gainerako guztiak ere izango dira: udal hauteskundeak utzitako argazki politiko berria, GEDren ziklo berria, lan gatazken hari luzea, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren fasez faseko kronika, mugimendu feministaren egonkortzea eta berrestea edota Zubimusu Ikastolak aro berriko lehen Kilometroak antolatzeari, besteak beste.

Azken batean, atzean uztera goazen urtearen hondarrak irakurgai dituzu, irakurle, datozen orriotan. Eta urte berrira begira, ba berriro ere, zure begiak gure orri artean topatzea nahiko genuke eta bide batez, atrebentziaz, begirada berriak eskatu nahiko genituzke.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeca Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **TELEFONOA:** 943 304346 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldezkatian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belautza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Ibai Luque



FRANKISMOARI ITZALUZEA

Aurten 80 urte bete dira Espainiako gerra zibila bukatu zenetik; 50 urte, Euskal Herriko bazterrak astindu zituen errepresio bortitza gertatu zenetik; eta 40 urte hauteskunde demokratikoak egin eta lehen udalbatzak aukeratu zirenetik. 2019ak erakutsi du oraindik ez dela justiziarik egin, min asko ez direla erreparatu eta egia batzuk oraindik itzalean jarraitzen dutela.



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Zortzi hamarkada egin behar dira atzera. 1939ko apirilaren 1a: hiru urtez Espainiako II. Errepublikaren aurka matxinatutako militarrek garaipena aldarrikatu zuten Francisco Franco jeneralak eskuz idatzitako gerra partearen bitartez. Europako herrialde askotan bezala, faxismoa gailendu zen Espainiako estatuan. Frankismoa deitu zitzaion ordutik aurrerako erregimen politiko berriari, mugimenduaren buruzagi zen jeneralarekin identifikatuta.

Aurreko urteetan, Espainiaren batasunaren alde borrokatu ziren batzuk; besteak, berriz, demokraziaren eta sozialismoaren alde. Herri asko erori ziren askorentzat amesgaizto modukoa izan zen hiru urte luze haietan. Tolosaldearen kasuan, aurreneko egunetan gertatu zen banaketa, eskualdeko kolpistak Leitzañ batu zirenean. 1936ko abuztuaren sartu ziren garaile Tolosan. Heriotza zigorra, espetxea, erbesteak edota jazarpena ezagutu zituzten garaitutzat jo zituztenek; Carlos Hernandez ikerlariak *Los campos de concentración de Franco* (Francoren kontzentrazio espa-

rruak) liburuan errepresio gauzatu zeneko eremuak aztertu ditu. Euskal Herrian hemeretzi egon ziren eta horietako bat Tolosako zezen plazan. «Eraikin horietako gehienak zutik daude gaur egun, baina ez dute plaka ziztrin bat ere jarri, han zer gertatu zen gogoratzeko», esan du Hernandezek.

Manu Aiertza tolosarrak, esaterako, aitari eta aitagina-rrerbari esker izan du Tolosan izan zen kontzentrazio esparruaren berri: «Bertara jendea eramaten hasi zirela kontatzaren zidaten, kartzela bat balitz bezala. Hutsaren truke, errepideak eta trenbideak konpondu behar izaten zituzten presoek. Ezkutuko heriotza zigor baten modukoa zen, lau-bost urtez, tortura amaigabeekin. Askotan, ziur hobe zela tiro batez hiltzea».

Errepresaliatu politiko horiek lan egin zuten, besteak beste, Erorien Harana (Madril, Espainia) eraikitzeko. Han daude Lucas Ugarte Plazaren gorpuzkiak. 23 urte zituela Levanten hil zuten, atzetik tirokatuta, eta ondoren, Teruelen lurperatu. «Ahalegin handien» ondoren, Veremuda Plazak —Lucasen amak— lortu zuen semearen gorpua To-

losara ekartzea, baina Madrilgo Erorien Harana amaitutakoan, 1962an, hilerritik gorpuzkiak hartu eta Espainiako hiriburura eraman zituzten, familiari haren berri eman gabe. Aurtengo otsailean, senideek egindako eskaera jarraituz EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk batera aurkeztu dute testu bat, aho batez onartu dena. Hiru puntu jasotzen ditu onartutako mozioak: Espainiako gobernuari Ugarte Plazaren gorpuzkiak Tolosako hilerriara ekartzeko eskatzea; onartutako testua Dolores Delgado Justizia ministroari eta Fernando Martinez Memoria Historikorako idazkari nagusiari helaraztea; eta Tolosako alkateari ematea familiaren eskaria gauzatzeko beharrezko dokumentuak sinatzeko eskumena. Horrekin guztiarekin, Tolosako herritarren heriotza argitzea ere nahi dute senideek.

Justizia ministeriora jo dute aurrena, Ondare Nazionalaren institutura gero, eta Ugarteren gorpuzkiak jasotzeko senitartekoei egin dituzten izapide guztiak alferrikakoak izan dira. Aurten bertan jaso dute Ondare nazionaletik erantzuna: «Zilegi da familiaren eskaera baina aztertu egin behar da bideragarritasuna, bai juridikoa eta baita ekonomikoa ere». Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Gogora Institutuak azaldu duenez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoatik 1.076 gorpu eraman zituzten Erorien Haranean hobiratzeko, 1959, 1962 eta 1963an. Beste 155 badira gutxienez Espainiako beste leku batzuetatik eramandako euskal herritarrak.

Jakina denez, aurtengo urrian atera dituzte Francisco Franco diktadorearen gorpuzkiak Erorien Haranetik eta haren senideek «Viva Franco» oihuarekin agurtu dute hilkutxa. Gorazarre egin diote. Bien bitartean, maiatzean jakin zen Jose Arana Irastorza gudariaren omenez Donostiako Polloe hilerrian jarrita zegoen plaka lapurtu egin zutela. Josetxo Arana, gudariaren ilobak «atsekabea, haserre, amorrua eta inpotentzia» adierazi zituen berria jakin bezain pronto: «Kanpoan dauden oroitarriak puskatu edo lapurtzen dituztenean ez duzu ulertzen, baina hilerri batean oraindik eta gutxiago. Familiaren panteoian zegoen plaka eta koldarkeri izugarria iruditzen zait». Zizurkilgo Udalaren ekimenez, 2018an jarri zuten plaka familiaren panteoian: «Gerra Zibilean borrokan hil zen EAE-ANVko lehenengo gudaria. Eusko Indarra konpainiarekin Euskal Herria defendatzen ari zela hil zuten Zizurkilgo Zarate



Bentan 1936ko irailaren 17an. Agur eta Ohore Eusko Guda-riei!». Zizurkilgo Udalak, plaka berrezartzea erabaki du.

Memoria ariketa, auzolandegia auzolanean

1913an jaioa zen Jose Arana Irastorza eta 23 urte zituela hil zuten. Tabakaleran egiten zuen lan eta Donostiako abuztuaren 31 kalean zegoen Euzko Indarra elkarteko kidea zen. 1936ko uztaila bukaeran, EAE-ANVren deiari erantzunez boluntario talde bat agertu zen elkartean borrokarako prest, eta ia armarik gabe Irun eta Zubeltzu aldera abiatu ziren, frontera. Buruntzan borrokatu, eta batez ere, Zarateko Benta defendatu zuten. Han 1936ko irailaren 17an Arana Irastorza hil eta 40 ordura, Aiztondoko mendietatik erretiratzeko agindua eman zuen Candido Saseta buruzagi militarrek. Eta hain zuzen, Eusko Gudarosteak erretiran utzi eta matxinatuek hartu zituzten kanoien kokalekua eta horiek botatako obus zatiak aurkitu dituzte aurten, Belkoain mendiaren inguruan.

Asteasu, Aduna eta Zizurkilgo udalek, Aranzadi zientzia elkartearen laguntza antolatzen duen Saseta Defentsa Sistema ikertzeko auzolandegiaren barruan egin dute aurkikuntza. Uztailaren 1etik 14ra bitartean, hogeitaz inguru aritu dira lanean 36ko gerra garaiko lubakietan. Albiztur eta Tolosa artean dagoen Olamuino mendian ere indusketak egin dituzte aurten eta Paco Etxeberría auzi medikuaren azalpenak jarraituz, hildako gorpuak nola aurkitu ikasi dute boluntarioek.

Auzolandegian, ohi bezala, azalpenak eman ditu Aranzadi zientzia elkarteko kide eta Historian doktore den Karlos Almorzak. Ikerlari amasarrak, aurten, Ezkabako espetxean 36ko gerra garaian greziera ikasteko idatzitako liburu bat aztertzen hasi eta euskara ikasteko liburu zifratua topatu du. Apirilean eman zuen ikerlanaren berri: Iruñeko Ezkaba espetxean preso sartutako gudari talde batek grekoa ikasteko osatutako *Tratado de Gramatica Griega* lana, nahiz eta gaztelaniaz idatzita egon eta bertan hizki grekoz



ageri adibideak, esaldi horiek irakurrita euskara entzuten da. Almorzaren tesia da, Ezkaban preso zeuden gudariak kartzela barruan gertatutako gauzei buruz aritzen zirela greziar gramatika ikasteko erabiltzen zituzten adibideetan. «Ikaragarriak gertatu dira», «zaspi gizon urkatu eban orrek», «Kepak bere buru il eban» bezalako esaldiak deszifratu ahal izan ditu liburuan. Euskal enigma txiki bat.

Tantaka dator 36ko gerraren testuinguruan errepresioa jaso zutenenekiko aitortza. Aurten Alegian egin dute. Aranzadi zientzia elkarteko Ione Zuloaga Muxika ikertzaileak idatzitako *Alegia, 1936-1945. Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan* liburua aurkeztu zuten martxoaren amaieran. Alegiako Udalak okasioa baliatu du 36ko gerran eta frankismoaren lehen urteetan errepresioa jasan zuten herritarrei eta senideei errekonozimendua egiteko. Orduko alkate Unai Iraolak nabarmendutakoaren arabera, «Errepublikaren eta

Euskal Herriko askatasunaren alde borroka egin zuten guztiak» omendu nahi izan dituzte.

Ohiturari jarraituz, apirilaren 14an, urtero bezala Tolosako Foro Errepublikazaleak deituta, hainbat errepublikazale bildu ziren Tolosako hilerrian. Lore eskaintza eginez omendu zituzten fusilatutako errepublikazaleak.

Errepresioa gorpuztuta

2018an bete ziren 50 urte Espainiako estatuak Gipuzkoan salbuespen egoera ezarri zuenetik. 1968ko abuztuaren 3an, ETAk Meliton Manzanas poliziaren inspektore burua tiroz hil ostean jarri zuten indarrean. Zortzi hilabeteko tartean, 1969ko urte hasiera bitartean, errepresioa nabarmen gogortu zen eta Javier Buces Aranzadiko ikerlariak aipatu duenez, «egunerokoak ziren etxebizitzaren miaketak, atxilotaketa masiboak, erbesteratzeak eta tortura-kasuak». Bucesek, Paco Etxeberraren laguntzarekin kaleratu du aurten





1968, *Gipuzkoa salbuespen egoeran* liburua. Liburuan, Julia Alijostes eta Eduardo Osa bikote ibartarraren gertakariak jaso dituzte, baita Eugenia Sarasola eta Inazio Aranalderekin ere. Bucesen arabera, Julia Alijostesen kasua berezia da. Izan ere, errepresaliatu gehienak gizonezkoak izan ziren, eta erbesteratuetatik soilik sei ziren emakumeak; horietako bat, Alijostes. «Hamahiru egunez eduki zuten inkomunikatuta». Jaenen egon zen bost hilabetez, bere etxetik 723 kilometrora; Inazio Aranalde, berriz, Huelvan egon zen, 926 kilometrora, eta Eduardo Osak sei urteko espetxe zigorra bete behar izan zuen.

Maiatzean liburua aurkezteko ekitaldia antolatu zuen Ibarako Udalak herrian eta ekitaldia baliatu zuen frankismo garaian errepresioa jasan zuten herritarrei aitortza egiteko. Orduko alkate Mikel Agirrezabalak egileek liburua ontzen hartutako lana goraipatzeaz gain, herritarrei zuzendu zitzaion: «Errepresioa jasan zuten herritarren izenak publikoki errekonozitu, eta herritarren aurrean, haiei duintasunez, balioa eman nahi diegu». Jazarpen politikoa bizi izan zuten ibartarrei eta haien senideei agurra dantzatu zieten, eta liburuaren ale bana jaso zuten opari.

1975. urteko azaroaren 20an hil zen Franco diktadorea, baina errepresioak segitu egin zuen Guardia Zibilararen kuarteletako pareten artean. Bucesek esana du **TOLOSALDEKO ATARIAN**: «1959. urtera arte errepresioa leunagoa zen, besterik gabe, oposizioa existitzen ez zelako. Francoren aurkakoak, edo lurpean, edo erbestearen zeuden. Inestituzio frankistak egonkorak ziren, eta ez zuten errepresio zuzena erabili behar bizirauteko. 1960tik aurrera, ordea, oposizio politikoa piztu egin zen, gerra ezagutu ez zuen gazteen belaunaldia aktibatu egin zen, lantokietan eta kaleko mo-

bilizazioetan. Orduan bai, errepresio zuzena erabiltzen hasi zen erregimena». Hain zuzen, Jokin Sarasolak, Jon Goñik, Josetxo Zabaletak, Elixabete Nosellasek, Juan Arangoak eta Joxe Ramon Begiristainek salaketa jarri dute aurrean, Tolosako epaitegian, 1975 eta 1978 urteen artean, Tolosako Guardia Zibilararen kuartelean torturatu egin zituztelako.

Sei herritarrek euren kontrako tortura saioetan, Jesus Muñecas Aguilar kapitaina identifikatu zuten. 1961ean sartu zen Guardia Zibilean, eta 1981ean Espainiako hainbat militar eta guardia zibilek Kongresuan egin zuten estatu kolpe saioan parte hartu zuen, Antonio Tejerorekin batera. Salaketak Tolosako instrukzio auzitegira eramanda, Espainiak Justiziaren esku utzi nahi dituzte frankismoaren aurka mobilizatu ziren milaka gazteri «izu zitala sartzeko asmotan» Tolosan, Donostian edo Zarautzen egindako krimenak. Urratutako bideari jarraituz Andoaingo Udalak, herriko hainbat biktimekin batera, kereila kriminala aurkeztu du ekainaren 12an Tolosako epaitegian.

Urtarrilean kereila aurkeztu zuen herritarretako bat da Eli Nosellas eta honako adierazpenak egin ditu Torturaren Aurkako Nazioarteko egunaren bueltan: «Guardia zibilak kondekorazio bila zetozen hona eta, gerora ulertu dut, guri horrelako tratu krudela emateak saria ekarri diela». Eta gaineratu zuen, «garai batean genuen kontzientzia eta indarra ez dizkigute kendu. Eta horrek bultzatu gaitu orain pausoa ematera». Urtarrilean jarritako kereilaren erantzunaren zain jarraitzen dute sei herritarrek.

Franco hil ondorengo lehen urte nahasi horretan, 1979ko apirilaren 3an egin ziren udal hauteskundeak, bigarren errepublikatik lehen aldiz, alderdi politikoek aur-



keztutako hautagaitzen artean eta sufragio unibertsalez. Aurten 40 urte bete dira. Amasa-Villabonako Udalak Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, omenaldia egin zien, martxoaren 9an, agintaldi hartan zinegotzi atera ziren bi emakumeri: Bittori Zeberiori eta Arantxa Sorondori. Agurra dantzatu zieten, eta lore sorta bana eman, opariek batera. Zeberioek gogoan du nola hartu zuen udalgintzan aritzeko konpromisoa: «Ez nengoen horretara ohituta, egin behar zela eta egin behar zela esaten ziguten, eta, azkenean, egin, egin genuen. Denari ezetz esatea ere...». Sorondok, modu berean, aurretik ikastola eraiki nahian hasitako borrokari segida eman nahi izan zion udalean, «instituzioetan bide hori indartzeko posibilitatea ikusi nuen momentu horretan». Biek aitortzen dute, berriak zi-

rela kontu horietan, eta ez zirela oso jantziak politikan, baina borondate handia zutela.

Urtemuga asko gogoratu dira amaitzear den 2019an. Atzera begirada egiteko balio izan du eta memoria egiteko. Josu Ibargutxi Frankismoaren Aurkako Kereilen Aldeko Euskal Plataformako kidearen gogoeta batek laburbiltzen du ariketa hori egitearen zentzua: «Batzuk ez dute ezer jakin nahi eta, besteek, ahaztu egin behar denaren kontu horrekin orria pasatu nahi dute. Guk ere pasa nahi dugu orria, baina irakurri eta gero. Eta, ondo irakurtzeko, derrigor, aurrez ondo idatzita egon behar du. Ezin dugu orria zurian utzi». Balio dezatela orri hauek egia batzuk azaleratzeko, justizia egiteko, eta 80 urte geroago, min batzuk sendatzen hasteko.

Maiatzaren 26an izan ziren udal hauteskundeak, eta EH Bildu koalizioak eskuratu ditu Tolosaldean alkatetza gehien; 18 herritan, zehazki. EAJ alderdiak Tolosan lortu du alkatetza, eta PSE-EEK Berrobin eta Larraulen. Zazpi herritan herri zerrendak izan dira aurkeztu direnak. Foru hauteskundeei begira, Tolosaldean EH Bildu izan da bozkatuena 11.177 botorekin, EAJ baino 1.685 boto gehiago jasota.

ABALTZISKETA

Hirugarren agintaldia Zubizarretarentzat

Jon Zubizarreta da Abaltzisketako alkatea. Hirugarren aldiz hartu zuen aginte makila maiatzean. Gaztez osatutako Herrigintza taldea izan zen udal hauteskundeetara aurkeztu zen bakarra, eta 152 boto eskuratu zituzten. %30,04ko abstentzioa izan zen.

ALKIZA



Inaki Irazabalbeitia, alkate izendatuta

Alkizako Abertzale Ezkertierra taldea izan zen bozkatuena Alkizan, eta Inaki Irazabalbeitiak hartu zuen alkate kargua, zortzi urtez alkate izandako Jon Umerezen eskutik. 130 boto eskuratu zituen taldeak. Parte hartzea, berriz, %69koa izan zen. Udaleko zazpi zinegotziak Irazabalbeitiak gidatzen duen taldearenak dira.

AMEZKETA

Iñaki Amundarainek jarraitzen du

Hirugarren agintaldia erraz bereganatu zuen Iñaki Amundarainek. EH Bilduk 351 boto lortu zituen, bost zinegotziren karguak bereganatuz. Beste aldean, Amezketa Etorkizun taldea aurkeztu zen Ainhoa Zuria-rrain buru zela. Hauek, 167 boto izan zituzten. Amezketarren %75,75ak bozkatu zuen udal hauteskundeetan.

ALTZO



Txomin Rezola da alkate berria

EH Bildu baino ez zen aurkeztu Altzon eta Txomin Rezola buru zuen zerrendak 205 boto jaso zituen. Zazpi zinegotziak beraienak dira, eta altzotarren %71,13a joan zen bozkatzera. Koalizioak duela lau urte baino 36 boto gehiago eskuratu zituen.

ANOETA

Pello Estangak du aginte makila

Anoetan, alde txikiarekin bada ere, EH Bildu koalizioak lortu zuen udaletxeko aginteari eustea. Pello Estanga da herriko alkatea, eta hirugarren agintaldia du honakoa. 585 boto eskuratu zituzten. Atzetik, EAJk, 423 boto jaso zituen. Bien artean banatu zituzten zinegotzi karguak. Koalizioak ditu sei zinegotzi eta EAJ alderdiak bost.

ASTEASU

Pili Legarrak errepikatuko du

499 boto lortu zituen Asteasu Batuz taldeak udal hauteskundeetan, eta Pili Legarrak jarraituko du alkateztan hurrengo lau urteetan ere. Hirugarren agintaldia izango du. Zazpi zinegotzi eskuratu zituzten eta EAJ alderdiak, bi zinegotzi, 184 boto lortuta. Herriarren partetik %61,24ko partaidetza izan zen.

ALEGIA



Arantxa Irazusta da Alegiako alkatea

EH Bilduko Arantxa Irazustak hartu zuen aginte makila lehen aldiz. 481 boto lortu zituen koalizio abertzaleak, eta lehen aldiz, Regina Sorarrain buru zuen Aurrera Alegia taldea aurkeztu zen, 421 boto lortuz. EH Bilduk sei zinegotzi ditu eta Aurrera Alegiak hiru. %73,55eko parte hartzea izan zen.

ADUNA

Josu Amilibia berriz ere alkatetzan

EH Bildu soilik aurkeztu zen Adunan, eta hirugarren agintaldiz jarraian Josu Amilibiak du aginte makila. 230 boto eskuratu zituen koalizio abertzaleak. Partaidetza %73,04koa izan zen.

AMASA-VILLABONA



Beatriz Unzué iritsi da alkatetzara

EH Bilduk EAJri kendu zion alkatetza Amasa-Villabonan, eta 1.517 boto lortuta Beatriz Unzuék eskuratu zuen alkatetza. Zazpi zinegotzi lortu zituen EH Bilduk, eta EAJk bost, 1.058 boto lortuta. Azken zinegotzia sozialisten-tzat izan zen. PSE-EEK 199 boto lortu zituen. Elkarrekin Podemos zinegotzirik gabe geratu zen 149 botorekin.

ALBIZTUR



Iñaki Orbegozo da alkate berria

Albiztur Bizituz talde gaztea aurkeztu zen udal hauteskundeetara, eta zein izango zen alkate jakin ez arren, 145 boto lortu zituen taldeak. Ostean, Iñaki Orbegozok hartu zuen kargua. %34,50eko abstentzioa izan zen.

BIDANIA-GOITAZ



Agurtzane Zelaia aginte makilarekin

EH Bilduko Agurtzane Zelaia da alkate berria. 169 boto jaso zituen alderdiak, eta oposizioiko Garai Berriak taldeak, berriz, 110 boto. Lau zinegotzi ditu irabazleak, eta oposizioak hiru. %73,22ko parte hartzea izan zen.

BERROBI



David de Miguel sozialista alkate

Zerrenda bakarra zuten bozkatzeko eta boto zuria eskatuagatik, 30 boto lortuta PSE-EEkoak dira zazpi zinegotziak. David de Miguel da alkatea. 218 boto zuri izan ziren, baina ez ziren iritsi botoen %95a lortzera.

BALIARRAIN



Bost alkate izango ditu Baliarrainek

Auzolanean Bizirik taldea aurkeztu zen, baina proposamen berriarekin. Bost zinegotziak pasako dira alkate kargutik. Josu Ozaita, eta atzetik Jaione Olano, Juan Mari Iturrioz, Maribi Garmendia eta Andoni Olano.

GAZTELU



Edurne Gartzia da Gazteluko alkatea

Soilik EH Bildu aurkeztu zen udal hauteskundeetara, eta 45 herritarrek EH Bilduko kideren bat bozkatu zuten. 117 herritar zeuden bozkatzera deituta, eta 80 joan ziren. Edurne Gartzia zen zerrendaburua, eta beraz, alkatea.

LARRAUL



19 boto lortuta Maite Arana alkate

PSE-EE alderdiak baino ez zuen aurkeztu hautagaitza. 19 boto nahikoa izan zituen Maite Aranaren zerrendak, zazpi zinegotziak bereganatzeko. 95 boto zuri izan ziren arren, botoen %16,66 lortuta sozialistena da udala.

BELAUNTZA

Silvia Moneorena da alkate kargua

Denok Bat taldeko Silvia Moneok jarraituko du alkate karguan Belauntzan. Lau zinegotzi dituzte 82 boto eskuratuta. Eta zinegotzi bakarra du Belauntzako Herritarrak taldeak. Guztira 147 pertsona joan ziren bozkatzera, duela lau urteko hauteskundeetan baino %5,47 gutxiago.

BERASTEGI

Amaia Azkuek alkate postuari eusten dio

EH Bilduko zerrendaburu Amaia Azkuek hirugarrenez jarraian irabazi ditu hauteskundeak. EH Bilduk 398 boto lortuta sei zinegotzi ditu, eta Beasti Bizi taldeak 254 boto jaso zituen, eta hiru hautetsi ditu. Parte hartzeak nabarmen egin zuen gora %15,96an haziz.

IKAZTEGIETA

Bakarne Otegi, beste lau urtez alkate

Bigarren agintaldian gehiengoa lortu du Bakarne Otegi. EH Bilduk 150 boto eskuratu zituen eta EAJ alderdiak 115. Irabazleek lau zinegotzi lortu dituzte, eta oposizioak hiru ditu. Herritarren %75a joan zen bozkatzera, eta duela lau urtetik alderatuta, %5,79 gehiagok eman zuen bozka.

OREXA

Eneko Maioz, hirugarrenez

Eneko Maioz da hirugarren agintaldiz jarraian herriko alkatea. EH Bilduk 76 boto jaso zituen, eta herritarren parte hartzea %86,37koa izan zen. Bost hautetsi dituzte, eta Maiozekin batera Gurutze Etxezabal, Joakin Iturrioz, Ainhoa Nazabal eta Garikoitz Balerdi dira zinegotziak.

IBARRA



Igor Zapirain da Ibarrako alkatea

Hirugarren agintaldiari eutsi dio EH Bilduk, eta Igor Zapirain da alkatea. 1.007 boto jaso zituzten, sei hautesi eskuratuz. EAJk 798 boto lortu zituen, eta hiru zinegotzi, eta PSE-EEK zinegotzi bat, 191 botorekin.

IRURA



EH Bilduko Gorka Murua alkatea

EH Bilduk berreskuratu zuen alkate-tza 458 boto jasota, eta Gorka Murua da alkate berria; bost zinegotzi dituzte. EAJk 350 boto lortu zituen, eta lau zinegotzi dituzte. Parte hartzeak %0,73 baino ez zuen egin gora.

LEABURU-TXARAMA



Joxe Ramon Eizagirre, aginte makilarekin

117 boto jasota EH Bilduko Joxe Ramon Eizagirre da alkate berria, eta lau zinegotzi eskuratu zituzten. Bide Berriak taldeak 77 boto lortuta hiru zinegotzi ditu. %75,46ko partaidetza izan zen.

LIZARTZA



Agintea Iñaki Azpiroz hartu du

EH Bildu eta EQUOk aurkeztu zituzten zerrendak, eta Iñaki Azpiroz zerrendaburu zuen EH Bilduk eskuratu zituen udaleko zazpi zinegotziak 296 boto jasota. 33 boto izan ziren EQUorenak.

ELDUAIN



Oihana Amundarain iritsi da alkatetzara

EH Bilduren zerrendak 114 boto jaso zituen Elduainen, eta udal gobernuko bost zinegotziak lortu zituen. Oihana Amundarain da aginte makila hartu duena. Azken hauteskundeetatik %4,8 igo zen parte hartzea.

ZIZURKIL



Iker Urruzola da alkate berria

EH Bilduk 825 boto jaso zituen, Urruzolaren zerrendak, sei zinegotzi bereganatuz. EAJk 388 botorekin zinegotzi bat galdu zuen, hirurekin geratuz. Sozialistek, berriz, bi zinegotzi lortu zituzten 267 botorekin.

HERNIALDE



Aitor Zubillagak du alkate makila

Herniope taldeko Aitor Zubillagak lortu du herriko alkate kargua 134 boto-ren babes jasota. Zazpi zinegotziak eskuratu dituzte, boto guztien %88,74a jasota, eta parte hartzeak %10,26ko gorakada izan zuen.

ORENDAIN



Migel Angel Arsuaga alkate izendatua

EH Bilduko Migel Angel Arsuaga da Orendaingo alkate berria. 90 boto jaso zituen, eta bost zinegotziak koalizio abertzalearenak dira. Duela lau urte baino zortzi boto gehiago eskuratu zituzten.

TOLOSA

Olatz Peonek duela lau urteko postua du

Olatz Peonek bigarren agintaldiari ekiteko nahikoa babes jaso zuen. EAJk 4.464 boto jaso zituen, eta honenbestez, zortzi zinegotzi eskuratu zituzten. EH Bilduk 4.249 boto jaso zituen zortzi zinegotzi lortuz. Giltzarria izan da PSE-EEK lortutako zinegotzi bakarra, 742 botorekin. Elkarrekin Podemosek 520 boto jaso zituen, eta zinegotzirik gabe geratu zen. Azkenik, PP alderdiak 214 boto lortu zituen. PSE-EEren babesak izan du alkatetzarako EAJk. Udal hauteskundeetan %31,31ko abstentzioa izan zen.

Bost urteko zikloa itxi eta urrats berriak emateko prest, GED

Bost urteko zikloa borobildu eta urrats berriak egiteko abiapuntu-tzat aurkezpenean egin zuen urte hasieran, Gure Esku Dagok. Herri galdekete- eman zuten emaitzaz «harro» dau- dela esan zuten, eta oinarria zabaltzen jarraitu nahi dutela azpimarratu zu- ten. «Orain arte 208 herri argiztatzeko gai izan gara, eta hemendik aurrera, Euskal Herri osoa argiztatzea dugu helburu». Ekitaldian nabarmendu zu- tenez, 218.248 herritarrek hartu zuten parte galdeketeetan.

Hautetsontziak eskuan hartuta Topi-eko areto nagusia bete zuten or- dezkariek, eta «elkarrekin ahalduntze- ko, ikasteko, gaitasun tekniko, ekono- miko eta kolektiboak bereganatzeko edota demokrazian sakontzeko» auke- ra izan zutela herriz herri egin diren galdeketeetan adierazi zuten. «Guan

sinesteko aukera eman digute haute- tsontziek, zer nahi dugun eta nola era- baki nahi dugun jabetzeko, urteetan aurpegira begiratu ez diogunari eskua emateko». Bost urteko zikloari amaie- ra emanda, orain, eragiteko garaia dela azpimarratu zuten Gure Esku Da- goko kideek. «Ezer ez dagoenean ziur, dena da posible. Orain da unea. Herri- tarron unea. Etorkizuna gure eskue- tan sentitzen dugulako, prest gaude erabakira iritsi arte lanean jarraitzeko, lurra ereiten segitzeko».

2013. urtean sortu zen Euskal Herri- ko lurraldeetan etorkizun politikoa erreferendum bidez, normaltasunez, libre eta demokratikoki erabakitzeko helburua duen mugimendu herrita- rra. Urte hauetan zehar, hainbat eki- men antolatu dituzte, eta lanketa egin ostean, urte amaieran iragarri zuten:



URTE OSOAN, KATALUNIARREI BABESA

Otsailean hainbat elkarretaratze egin ziren auzipetu katalanen aurkako epaiketa sala- tzeko. «Erabakitze eskubidearen aurkako epaiketa, herrien autodeterminazio esku- bidea ukatu nahi duen epaiketa» dela adie- razi zuten Gure Esku Dagok. Urrian, epaia eman ostean, besteak beste, xingola horia marraztu zuten, Tolosako Trianguloa pla- zan, eta Uzturre mendia argiztatu zuten el- kartasuna adierazteko. ITZEA URKIZU

2020 urteko maiatza eta ekainera be- gira erreferendum bidez erabaki ahal izateko helburua duen sinadura bilke- ta jarri dute martxan. «Inoiz ikusi ez den sinadura bilketa masiboa» abiatu- ko du Gure Esku Dagok. Maiatza eta ekaina bitarte, herriz herri ahalik eta sinadura gehien biltzen ariko dira.

Ataria bertso jaialdia 2020

Amaia Agirre
Gai jartzailea

Maialen Lujanbio Amets Arzallus Oihana Iguaran Alaia Martin Julio Soto Andoni Egaña

Urtarrilak 18, larunbata arratsaldeko 18:00etan.
Tolosako Leidor antzokian



Azaroan egin zuten Nekane Txapartegiren estradizio eskaera salatzen elkarretaratzea. J. MIRANDA

Nekane Txapartegi estraditatzeko eskari berri bat, Madrilek

Maiatzean Bernako auzitegi batera joan behar izan zuen Nekane Txapartegi asteasuarrak, Espainiako Auzitegi Nazionalak irekitako auzi batengatik deklaratzera. European barrena ibiltzeko dokumentazio faltsua erabili izana egotzi zioten, baina Txapartegik uko egin zion deklaratzeari: «Torturapean egindako deklarazioetan oinarrituta eraiki duten akusazioari erantzutea, akusazio hori legitimoa dela onartzea baita». Free Nekane taldeak orduan aurreratu zuen Espainiak estradizio eskari bat aurkezteko asmoa zuela.

Txapartegi 1999an atxilotu zuten eta indarkeria matxista erabiliz torturatu zuten. Torturapean egindako deklarazioetan oinarrituta, 11 urteko kartzela zigorra ezarri zion Espainiako Auzitegi Nazionalak eta atxilotu aurretik ihes egin zuen. 2016an bizilekua zuen Suitzan atxilotu zuten Espainiako estatuak egindako estradizio eskaeraren harira. 17 hilabetez eduki zuten preso eta 2017ko irailean libre utzi zuten, bere aurkako kondena gutxitu eta preskribatu ondoren.

1999an atxilotu zutenetik 20 urtera, berriz ere, Suitzako espetxe batera sar-

tzeko arriskuan egon daitekeela eta, «nire ideien aurkako jazarpen politikoak aurrera jarraitzen du, nire aurkako ehiza ireki da», dio.

Azaroan, Bernan (Suitzan) berretsi zioten asteasuarrari estradizio eskaera berri bat mahai gainean jarri duela Espainiako estatuak. «Orduan torturatzailerik nire emakume gorputza gudu zelai bihurtu zuten, eta orain, bizi izandako tortura sexista salatu eta horren aurka borrokatzen dutelako jazarpen nauten», adierazi zuen asteasuarrak.

Txapartegiren abokatua den Olivier Peter-ek «prozedura justua eta jazarpen politiko» salatu zituen eta Suitzako gobernuari torturaren aurkako posizionamendu argia eskatu zion. Norabide berean hitz egin zuen errefuxiatuak: «Ikusiko dugu zein aldetan kokatzen diren Suitzako agintari 'neutralak', torturaren aurka edo alde. Ezin baita orain artean bezala 'neutralitatearen' izenean torturatzailerik kolaboratzen jarraitu». Suitzan eta Asteasun jasotako elkartasun keinuak eskertu zituen asteasuarrak: «Indarra ematen dit gure askatasunaren alde borrokan jarraitzeko». Azaroan, herrian egindako azken elkarretaratzean ehun herritar baino gehiago elkartu ziren plazan.

Emilio Salaberria

Jose Luis Castro Espainiako Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzako epaileak egun batzuetarako irteera baime-na eman zion urrian Emilio Salaberria billabonatarri.



MAITE ARANALDE IBARTARRA, ASKE

Maite Aranalde 2018ko irailaren 20an Espainiaratu zuen Frantziak, eta 2019ko martxoaren 11n geratu zen aske Madrilgo Soto del Real espetxetik, badaezpada neurriekin eta epaiketaren zain. Ibartarraren aurka hiru euroagindu zabaldu zituen Espainiako justiziak. «Horietatik bi bertan behera geratu ziren, eta hirugarrena aztertzen ari ziren une horretan», azaldu zuen familiak. Goizaldeko 02:00etan iritsi zen herrira eta lehen harrera egin zioten. Egun gutxira egin zioten ongi etorria herrian herritar eta lagunak elkartuz. 17 urte egin ditu herritik kanpo Maite Aranaldek.



ORBINOX

JARIAKINEN KONTROLERAKO SISTEMAK

- Gillotina-balbulak
- Euste-balbulak
- Solidoekin osaturiko jariakinentzako balbula bereziak
- Damper-ak
- Balbulak eta konportak presa eta ur-obretarako



www.orbinox.com

ORBINOX S.A. Industrialdea, z/g - 20270 ANOETA - Tel.: + 34 943 69 80 30



Tolosako Ezpala gaztetxeak Gaztetxe Eguna ospatu zuen irailean, eta manifestazioa egin zuten herrian zehar. I.G.L.

Ezpala eta Kaxilda, irekita

16

Tolosako Ezpala eta Zizurkilgo Kaxilda gaztetxeak okupatu dituzte Tolosako eta Aiztondoko Gazte Asanbladek

Gune autogestionatu bat izateko beharrak okupaziora eraman ditu Zizurkilgo eta Tolosako gazteak, aurtun. 17 urtez hutsik egon den espazio bat okupatu zuen apirilean Aiztondoko Gazte Asanbladak Zizurkilken.

Ordutik, zabalik dute Kaxilda gaztetxea. Astebete beranduago ireki zuten, bigarrenaz, Ezpala gaztetxeak bere ateak, Tolosako Gazte Asanbladako kideen ahaleginarekin.

Ateak ireki bai, baina ez dute urte lasaia izan bi asanbladek. Ateak ireki bezain pronto jaso zuten Ertzaintzaren bisita. Kaxildakoen kasuan, bi lagun identifikatu zituzten, eta Ezpalakoen kasuan, kide bat.

Okupazio delitua egotzita, abendu hasieran egin dute Kaxildako bi lagun aurrak epaiketa Tolosako epaitegian, eta fiskaltzak Kaxilda gaztetxearen berehalako hustea eta auzipetu bakoitzarentzat 3 hilabeteko espetxe zigorra eskatu du. Espetxea ekiditeko, ordea, 1.100 euro inguruko isuna ordaindu beharko lukete. Egun, ez dute epaiaren berririk. Datozen hilabeteetan jakitea espero dute ea zer egozten



Kaxilda gaztetxea. I. S.



Ezpala gaztetxea. J. A.

dieten bi gazteei, eta kaleratzea eman-
go den edo ez. Hori horrela, «ezinegon
handia» bizi dute gaur egun gazteek:
«Denon baitako auzi bat da, eta denoi
berdin eragiten digu».

«Bi hauei tokatu zaie, baina beste
edozein izan zitekeen, eta elkartasuna
adierazi nahi diegu. Bi pertsonen ize-
nak daude hor, baina kolektibo oso bat
gaude atzean. Eta ez gu bakarrik, bai-
zik eta, Euskal Herriko gure mugim-
endua elikatzen duten beste kolekti-
bo asko daude», diote Aiztondoko
Gazte Asanbladako kideek.

Ezpalakoak epaiketaren zain

Irailaren 3an Tolosako epaitegira ager-
tzeko agindua zuen Tolosako gazte
Asanbladako auzipetuak. Gero, ordea,
data atzeratzea erabaki zuen epaileak,
eta une honetan, datarik gabe dago
epaiketari hori.

Eraikinak okupatu zituzten unetik
izan dute jabeekin negoziazio proze-
sua abiarazteko gogo. Tolosakoen ka-
suan, baina, ez dute harremanik izatea
lortu. «Modu ezberdinetan saiatu
gara, baina bere aldetik ez dugu eran-
tzunik jaso». Kaxildaren kasuan, be-
rriz, jabeekin harremanetan egon dira.
«Negoziazio mahai bat ireki genuen
jabeekin eta udal gobernuarekin. Pro-
zesua oso neketsua izan da guretzat,
presio soziala handia baitzen. Traba
ugari izan ditugu, eta azkenean, ez du
fruiturik eman».

Gelditu gabe

Ateak ireki ondotik, ekintza ugari
eman dira aurrera bai batean zein be-
tean: gai politikoei buruzko hitzal-
diak, tailerrak, bertso eskolak... Aurre-
rantzean ere egingo dituzte. «Helbu-
ruek gaztetxe bat izatea da, eta hori
lortu ari jarraituko dugu». Kaxildako-
en kasuan, erabakiaren arabera, bali-
teke beste modu batera lan egitea.
«Gaztetxera etorri eta gu bertatik bota-
tzea lortuz gero, asanblada modura ja-
rraituko dugu lanean, paraleloki. Nos-
ki, espazio fisiko bat lortzeko borrokak
aurreratuko du».

Bai Ezpalan, baita Kaxildan ere,
gazte gehiago erakartzea dute helbu-
ru. Jakitun dira, ordea, «oso zaila»
dela. «Askok ez dira eroso sentitzen, ile-
galki okupatutako guneak direlako». Hori
dela eta, gazteak herrira aterat-
zen saiatu dira, manifestazioak edota
dinamika ezberdinak lantzen.



Zizurkilgo Joxe Arregi plazan egindako aurkezpen agerraldia. ATARIA

Tolosaldeko Gazte Frontea osatu da

Tolosa, Ibarra eta Aiztondoko
gazte asanbladak, IA-ko kideak,
Orixeko Talde Feministakoak
eta Tolosako Neska Taldekoak
bildu dira frontean

Frontean elkartu diren gazteek gi-
zarte kapitalistaren barruan koka-
tzen diren «gazte langile» bezala defini-
tzen dute beren burua eta errealitate
horrek gazteei sortzen dizkieten «mise-
ria zein zapalkuntzak» identifikatu, bo-
rrokatu eta desagerrarazteko hautua
egin dute. «Gazte problematikak duen
klase izaera eta aldaketak izan behar
duen osotasunaren ikuskeran» berres-
tu dira.

2018ko ekainean eta 2019ko otsaile-
an egindako topaketak jo dituzte To-
losaldeko Gazte Frontearen abiapuntu-
tzat: «Eskualdeko gazte mugimenduko
komunikazio eta harreman faltaren
aurrean, batasun politiko bat identi-
fikatu eta bermatzeko beharra ere azale-
ratzen joan zaigu, langilegoaren gazte
subjektuaren eragile eta kideak garen
momentutik». Emantzipatzeko ezinta-
suna eta lan kontratu tenporalak joera
orokortu bihurtzen ari direla ikusi eta
gazteak krisiaren ondorioen jo puntue-
tako bat direla diote, «ezin baita ukatu
geroz eta etorkizun ilunagoa dugula».

Gazte Fronteko kideek uste dute, iza-
era despolitizatua duten langile sumi-
soak sortzea dutela helburu: «Esplota-
zio sistema hau onartu eta zalantzan ja-

rriko ez duen gazte eredu bat sortzeaz
arduratzeko, hezkuntza sistema
edota festa kapitalistaren desfasearen
bitartez». Hala ere, ez zaie iruditzen
gazteei isolatuki ezartzen zaien esplota-
zio eta dominazio sistema denik, lan-
gileria osoaren aurka martxan duen
makinariaren zati bat baizik.

2008. urtetik bizi den krisi testuingu-
ruan klase borrokaaren zantzuak geroz
eta nabarmenago agertzen direla dio
Gazte Fronteak, «izan jubilatuen pen-
tsioak estutzean, soldadak murriztean,
edo lanpostuak osasuna galtzeko, edo
kasurik okerrenean, bizitza galtzeko
gune bihurtzen direnean». Langileria-
ren kontzientzia piztu eta bere duinta-
suna eta askapena borrokatzeko bal-
dintzak sortzen ari direla pentsatzen
du Tolosaldean osatu den fronteak:
«Izan ere, krisi garaietan, burgesiak
bere boterea eta etekinak bermatzeko
esplotazio formak bideratzen ditu, on-
gizatearen maskara apurka desegiten
zaiolarik».

Euskal Herrian, Gazte Koordinadora
Sozialista, Itaia edo gaztetxe eta gazte
asanbladak ematen dituzten jardun
desberdinak –jantoki sozialak kasu–,
etorkizun sozialista baten defentsan
azken urteetan sortutako «adierazpen
sozialista» bezala ulertzen dituzte. To-
losaldean, Ezpala eta Kaxildaren birja-
betzeak, «gazteen loraldiaren eta langi-
le boterea areagotzearen parte izan
dira», Gazte Frontearen iritziz.

ADOSTU, AMORE EMAN EDO SEGI

Urtea hasterako, Gipuzkoako epaitegi eta ertzain etxeetako garbitzaileen grebek hartua zuten kalea, urte erdira luzatzeko; urte amaiera, berriz, Gipuzkoako zahar etxeetako langileen grebarekin doa. Tartean, papergintzako eta grafikagintzakoak ere izan dira protagonista. 2019ak ere eman ditu lan gatazkak; batzuk lortu dute, besteak bidea egiten ari dira.



Gipuzkoako papergintzako langileek sei greba egun egin dituzte aurten; irudian, Tolosako manifestazio bat. J. MIRANDA

AMORERIK EMAN GABE, HITZARMEN BATEN ATZETIK

Urtea borrokan hasi eta halaxe amaituko dute Gipuzkoako zahar etxeetako langileek; tartean dira Tolosako Iurreamendi egoitzako eta Amasa-Villabonako Santiago egoitzako langileak. Lan hitzarmen duin bat lortze bidean, lanuzteak eginez pasa dute urtea, eta akordiorik lortu ezean, greban amaituko dute urtea. 158. greba eguna bete zuten abenduan. Eta ELA sindikatuak deituta, urtarrilaren 10a bitarte egingo dute greba.

Gipuzkoako zahar etxeetako kideek ia hiru urte darमतate negoziazioekin, baina ez dute emaitzarik lortu. Sektoreko 5.000 langileren lan baldintzak hobetzeko eskatzen ari dira sindikatuak, soldata eta ratio hobekaldarrikatuz. Negoziazioek, ordea, bere horretan jarraitzen dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak negoziazioa blokeatuta daukala salatzen du ELAk: «Sektorearen %90 finantzatzten du, eta enpresen etekinak handitzea diruz laguntzen du, lanaldi partzialeko kontratazioa eta sektoreko langileen soldata-arrakala betikotzearen kontura».

Azaroaren hasieran akordio «partzial» bat lortu zuen UGTk patronalarekin, baina gainerako sindikatuak esan dute lan itun osoa lortu arte borrokan jarraituko dutela.



Amasa-Villabonan egindako mobilizazioa, azaroaren amaieran. I.S.

BORROKAK EKARRITAKO AKORDIOAK

Negoziaketetan hasi zuten urtea, besteak beste, grafikagintzako eta papergintzako langileek eta greban ekin zioten urte berriari Gipuzkoako epaitegi eta ertzain etxeetako garbitzaileek. Urteak aurrera egin ahala ordea, akordio batera iritsi dira hiru sektoreak patronalekin, eta greba egunak tarteko, normaltasunez ari dira egun lanean.

Borrokarik luzeena Gipuzkoako epaitegi eta ertzain etxeetako garbitzaileena izan da. 281 egun greban egin ondoren, ekainaren 26an lortu zuten akordioa Garbialdirekin. Grebalariek batez ere kale garbitzaileen aldean jasaten duten soldata arrakala ezabatzea eskatu dute borroka iraun duen bitartean. Akordioan jasotakoaren arabera, kale garbitzaileekiko duten soldata arrakala %70 murriztuko zaie. Horrez gain, Garbialdik aitortu zien baldintza toxiko eta lan nekagarrietan aritzen direla; ondorioz, soldata osoaren %20 besteko plus bat izatea erabaki dute.

Arte grafikoen sektorekoen egoera bestelakoa zen hasierako momentutik; langileek diotenez, «egoera onean» zegoen sektorea. Aurreko lan hitzarmenaren

epealdia amaitzeaz zegoen, ordea, eta sindikatuak eta Adeg patronalak urte hasieran ekin zioten ituna berritzeko prozesuari. Egoerak ez aurrera ez atzera egiten zuela ikusita, zortzi greba egun egin dituzte urtean zehar, eta urriaren amaieran hitzarmena berritzea adostu zuten. ELAk ordea ez zuen akordio hori babestu, izan ere haien ustez, «aldarrikapenetatik urrun» dagoen hitzarmena sinatu zuen LABek, eta bazegoen «lorpen handiagoak lortzeko margena».

Patronalaren aldetik eskaintzetan hobekuntzarik ikusi ez, eta hitzarmen berri baten alde borrokan aritu dira Gipuzkoako papergintzako langileak ere. Sektore horren egoera ere «oso ona» dela baieztatu zuten sindikatuak; «sektoreko langileek sortutako aberastasuna banatu eta eskubideetan aurrerapausoak emango dituen» hitzarmen bat lortze bidean aritu dira borrokan. Sei greba egun eta gero sinatu zuten lan ituna LAB eta CCOO sindikatuak uztailen. Amezketako Aralar, Berastegiko Ahlstrom Munksjö eta Zizurkilgo Oria enpresetako langileak batu ziren greba horretara. Kasu honean ere, ELAk ez zuen sinatu.



TOPA plataformak Tolosako Triangulua plazan egindako elkarretaratzea. A. IMAZ

OSPITALE PUBLIKORIK GABE, OSASUN PUBLIKOAREN ALDE

Gipuzkoan, ospitale publikorik gabeko eskualde bakarra izaten jarraitzen du Tolosaldea. Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformak aurrez ere esana du Osakidetza zor historikoa duela gure eskualdearekin. Urteetan Donostialdeko ospitalearen osagarri bezala funtzionatu zuen Asuncion Klinikak, baina Eusko Jaurlaritzako Osasun sailarekin sinatutako hitzarmenaren ondoren, 2011tik eskualdeko erreferentzia zentroa da. Urtean 21 milioi euro jasotzen ditu klinikak Tolosaldeko herritarren osasun beharrianak asetzeko eta TOPAko kideen ustetan, «ez du ez azpiegitura, ezta pertsonal egokirik funtzio publiko hori emateko».

Eusko Jaurlaritzaren 2017ko aurrekontua oinarri hartuta azterketa egin du plataformak eta ateratako ondorioen arabera, eskualdeko biztanle bakoitzeko 555 euroko gastua egiten du Osakidetza. Alderaketa egin eta ikusi dute beste eskualdeetako herritarrei urte batean batez beste bideratzen zaiena baino 160 euro gutxiago gastatzen dela Tolosaldeko herritarren osasun arretan. 2018 eta 2019ko aurrekontuetan joera hori mantendu egin dela esaten dute plataformako kideek, beraz, 70 milioi euro exijitzen dizkiote Osakidetza.

Urteak aurrera egin ahala egoerak ez du hobera egin. Uda aurretik hizpide izan zen Tolosako Asuncion klinika, EAJk ospitalea egiteko beharrien aldeko jarrera publiko egin zuenetik. Orduraz geroztik, TOPA koordinakundea lanean jardun da eta Asuncion klinikako profesional medikuei buruzko ikerketa egin dute. Iaz jakitera eman zuten, klinikako hainbat profesionalak lanpostua utzi zutela, eta zentroan aldaketak gertatu zirela: «Azkeneko urte eta erdian 30 mediku aldaketa izan dira kliniketan». Orain, Gipuzkoako Mediku Elkargoarekin informazioa berretsi eta gero, salaketa argia egin dute: Asuncion klinikako hainbat mediku beharrezko homologiorik gabe ari dira lanean.

Azken hilabeteetan, zenbait zenbaki argitaratu ditu TOPA: besteak beste, «Osakidetza anestesien eta erreanimazioan aritzen diren espezialisten %100ek titulu homologatua duten bitartean, Asuncionen espezialisten %43k dute homologazioa».

2011ko urte hasieran borrokari ekin ziotenez geroztik, TOPA ia bederatzi urte daramatza Tolosalderako osasun zerbitzu «duina» eskatuz, eta gainerako eskualdeetakoarekin parekatzea jomugan jarritz.



TOLOSALDEA BUSEN AFERAN, KALERATZE BAT

2018ko hamar hilabeteko grebaren ondotik, «akordio on bat» lortuta, txanponaren beste alde ezagutu dute aurten Tolosaldea Buseko langileek: enpresak pertsonalaren ELAko ordezkaria kaleratu zuen, martxoan. Lanuzte mugagabea iragarri zuten hasieran, baina atzeratzea erabaki zuten ondoren «herritarrak ez kaltetzeko».



PENTSIODUNEK BORROKAN JARRAITZEN DUTE

Aurten ere ez dira gutxi izan pentsiodunek egin dituzten protesta eta mobilizazioak. Egungo pentsioekin hilaren amaierara iristen zailtasunak dituztela eta, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen pasa dute urtea.



KRISTAU ESKOLETAKO IRAKASLEEK, AKORDIOA

Urtetan berritu gabeko hitzarmena berri-tzea eskatzeko lanuzteak egin dituzte ikastetxe erlijiosoetako irakasleek. Eskualdeko kasuan, Herrikide ikastetxea izan da borroka horretan parte hartu duena. Azaro erdian, ordeza, akordioa sinatu zuten patronalak, sindikatuek eta Eusko Jauriaritzak.

Langile baten heriotza, Zizurkilgo Ula enpresan

Urtea hastearekin batera, lan istripu bat gertatu zen otsailean, Zizurkilgo Ula enpresan. 43 urteko gizon bati, ustez, pieza bat gainera erori zitzaion eta momentuan bertan hil zen.

Bost hilabeteren barruan, hiru lan heriotza gertatu dira Zizurkilan; beste biak 2018an gertatu ziren. Hori horrela, Maiatzaren Lehenaren harira, ekin-tza egin zuten Zizurkilan LABek eta Ernaik: pankarta bat zintzilikatu zu-ten, eta horren parean, lurrean, hiru pertsonen siluetak gorritz margotu zi-tuzten.

Gaixotasun profesionala aitortu diote Josefa Ibarbiari

Josefa Ibarbia tolosarrak Berrobiko paper fabrian egin zuen lan 1955 eta 1963 urteen artean. Amiantoarekin harremanetan lan egiteak pleurako mesotelioma gaixotasuna eragin diola ebatzi du aurten Osalanek, eta Gipuzkoako gizarte segurantzak, ezintasun osoa aitortu eta pentsioa igo dio: 2.405 eurora igo diote, lehen erretiroagatik eta alargun izategatik 1.000 eurokoa zuen saria.

BIZILAN.eus

ARGITU ZURE ZALANTZAK KLIK BATEZ

Ezagutza da aldaketarako
lehen pausoa



EMAN PAUSOA
ZURE ESKUBIDEEN ALDE!
www.bizilan.eus



Haize eta asmo berriak ditu 2019ak Enirio Aralarren

Aralarko pisten auzia epaitegietan dago, eta udal hauteskondeek lehendakari aldaketa ekarri dute

Udal hauteskundearen ostean, Enirio-Aralar Mankomunitatea ordezkari berriz osatu da. Hamabost herrik osatzen dute, eta horietatik Abaltzisketa, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendain dira Tolosaldekoak. Uztailaren 29ko batzarrean erabakita, Ordiziako alkatea eta EH Bilduko ordezkaria den Adur Ezenarro izango da lehendakaria hurrengo lau urteetan. Berrikuntzen artean, Enirio-Aralar Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak erabakita, mankomunitatearen barruan landuko diren gaien inguruan aholkurako eta eztabaidarako osatu den organo berria dago: Aholku Batzordea.

Uztailean, esaterako, oraindik ere Aralar Bizirik elkarteak pista berriak ez egiteko eskatzen zuen. Eta otsailaren 27an, Jose Migel Santamaria Enirio Aralar Mankomunitateko lehendakaria zenak Tolosako epaitegian ikeritu gisa deklaratu zuen, Eguzkik eta Landarlanek Gipuzkoako Ingurumen Fiskaltza Nagusian jarritako salaketaren ondorioz. «Ingurumen balioak duen garrantzia baztertuz, interes pribatu batzuen alde jarri, eta pista egitea eskatu eta bultzatu du», salatu zuten bi elkarteek.



Mendi buelta egin zuten basotik Anoetan, ikerketaren harira. ATARIA

Basoa, kultura da

Eskutuko Haziak taldeak basoaren gaineko ikerketa egin du, eta Anoeta herria izan da tartearen, eta bertan aurkeztu zuten ikerketa. Basoari bizkarra emanda bizi izan gara orain arte, eta gizartean, oro har, ez da gaiaren inguruko eztabaidarik egon. Oso jende gutxik diseinatu izan du baso politika, «interes oso jakinak asetzeko». Hala uste dute Eskutuko Haziak taldeko kideek, eta tartearen da Maddi Sarasola anoetarra.

Gipuzkoa inguruko bost ikasle batu eta Eskutuko Haziak taldea sortu zuten, ikergai gisa Anoeta hartuz: «Udalak aurretik bazuen lanketa bat egina, landa garapenaren inguruan, eta proposa iruditu zitzaigun ikerketa hemen garatzea».

Hausnarketarako gogoia pizteko proposamena landu dute. Agroekologiak proposatzen dituen ildoetatik ba-

sora gerturatzeko gonbita da, azken batean, egin dutena: «Gizartean sortzen diren harremanen isla da basoa eta, hortaz, lurraldea ulertzeko beste era bat da proposatzen duguna, osasuntsuagoa eta jasangarriagoa».

Jakintza akademikoa eta herri jakintza uztartu nahi izan dituzte ikerketa garatzeko, eta bizi dugun ingurua ulertzeko beste modu bat partekatuta nahi izan dute. Horregatik interesgarria iruditu zitzaaien, maila akademikoan egindako ikerketa herritarrekin partekatzea.

Anoetako gazte asanbladarekin elkarlanean, ekoizle agroekologikoekin mahai ingurua antolatu zuten, eta mendi ibilbide bat ere egin zuten basotik barrena. Herritarren aurrean ikerketa publiko egingo zuten. Azken batean, «Zer da basoa?» galderari ertz askotatik erantzun zitoten.



Anoetako Udala

TOLOSA

ONENETAN ONENA ERDI-PREZIOAREN ERDI-PREZIOAN

Eta orain...

LEHENENGO
HILA DOAN!

19'9€
/mes



euskaltel

KANTATZEN DUEN HERRIA EZ EZIKI, DANTZATZEN DUEN HERRIA ERE BADA ALEGIA

Alegiako Sutarri dantza taldeak 20 urte bete ditu. Talde txiki batekin sortu zen dantza taldea oso osasuntsu dago eta, gaur egun, 112 dantzari ditu. Maiatzaren 12an urteurren festa egin zuten. Kalejira egin zuten txarangarekin batera, herrian barrena, hainbat dantza eskainiz, eta herri bazkariaren ostean, berriz, Elizagoien ahizpen eskutik erromeria izan zuten.

ATARIA



'IKASTOLATIK ZUMADIRA' LIBURUA AURKEZTU DUTE AMEZKETAN


Apirilaren 6a festa eguna izan zuten Amezetan. Ikastolaren sorreratik, 1966tik, gaur egunera artekoa bildu dute liburuan, eta herritarrei aurkeztu nahi izan zieten. Omenaldi xume bat egin nahi izan zieten herritarrek ikastolaren sorreran parte hartu zutenei, eta haien senideei. 250 lagun inguru elkartu ziren ondoren, frontoian bazkaltzeko. ATARIA

ANOETAKO HERRI IKASTOLAK MENDE ERDI

Anoetako ikastetxeak 50 urte egin ditu eta ikasturte honetan urteurrena ospatzeko ekitaldiak egin dituzte. Otsailaren 9an, esaterako, ikastolako ikasle, guraso, irakasle eta langile izan direnei esker ona adierazteko ekitaldiak egin zituzten. Ikasturtean zehar, 50 urte hauek biltzen dituen infografia atera dute eta ikastolaren materiala jarri salgai. Datorren ikasturteari begira, mende Erdiko historia eta aurtengo ospakizunak bilduko dituen liburuak kaleratuko dute.

ATARIA





Alegiako Udala

Tel.: 943 65 30 16

943 65 10 87

alegia.eus

udala@alegia.eus





AMASA ETA VILLABONA ELKARTU ZIRELA 400 URTE

Amasa eta Villabona duela lau mende elkartu ziren, 1619. urteko urrian hartu zuten bi herriek bat egiteko erabakia. Data hau ospatzeko, 12 hilabeteak kultur eta kirol ekitaldiz osatu dituzte, *2 herri, helburu 1* lelopean. Dantza, musika, hitzaldiak, nahiz kirol arloko ekitaldiak izan dira urte osoan.

Maiatzean, esaterako, Migel Zeberioiok prestaturiko *Vagera herri bat* ikuskizuna izan zen Olaederra kiroldegian.

ATARIA

26

SAIAZ MANKOMUNITATEAK 25 URTE

Albizturrek, Bidania–Goiatzek, Beizamak eta Errezilek osatzen duten Saiaz Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 25 urte bete ditu. Herriar guztien bizi kalitatea hobetzen egin duten lana gogorarazteko, apirilaren 12an egin zuten urtemuga festa. ATARIA



TOLOSA ETA UZTARITZE, 30 URTE SENIDETUTA

1989ko ekainaren 28an sinatu zen Tolosa eta Uztaritze herrien arteko senidetza agiria. Aurtengo ekainean, beraz, 30 urte bete dira.

2016ko urrian hitzarmena egungo errealitateara egokitu zen, Euskal Herriko lurraldeen kohesioa eta lankidetzaren oinarri hartuz, biztanleen arteko harremanak sendotzeko asmoz. Urtemuga borobila ospatzeko ekitaldi sorta izan zen ekainaren 29an.

ATARIA



**2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuak terraza
zabal eta eguzkitsuak ikuspegi paregabeak mendietara
zatoz eta erreserbatu zure gustuko pisua!**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA



2019rako prestatutako ekitaldien berri emateko eskaini zuten prentsaurrekoaren artxiboko irudia. ENERITZ MAIZ

Mikaela Elizegi eta Pello Errota izan dituzte gogoan

2019an bete dira ehun urte Pello Errota hil zela; 2018an hasi zituzten ekitaldiak, baina aurten ere izan dute jarraipena

Luze jo du Asteasun, Pello Errota-ren heriotzaren mendeurrenak. 2018an hasi zituzten ekitaldiak, eta bertsolaritzan eta orokorrean euskal kulturaren ezinbesteko erreferentzia denez, 2019an ere luzatu dira jarduerak.

Pello Errota edo Pedro Jose Elizegi, 1840an jaio zen, eta errotraria izaki, ezizen hori hartu zuen. Aurten ez dira ordea, Pello Errotaren ekarpenera mugatu, eta Mikaela Elizegi alaba ere izan dute gogoan. Alabari esker iritsi baita gaurdaino Pello Errotaren berri, berak kontatu baitzizkion Antonio Zabalarai aitaren pasadizo eta bertsoak. Emakume berezi, indartsu, berritsu eta memoria onekotzat definitu izan dute. Bernardo Atxagak hari buruz hitz egitean adimen handiko eta euskara zein sormen maila altukotzat aipatu du beti.

Bi pertsonaiei buruz Pili Legarra al-

kateak esan zuen: «Oso ondo irudikatzen dituzte Asteasun nortasun eta ezaugarriak». Kultura homogeneizatzen ari den honetan «Asteasu bezalako herriek beren izaera eta identitatea aldarrikatzea» garrantzitsua dela ere esan zuen.

Urteurrenaren harira, hortaz, ekitaldi sorta zabala izan da azken hilabeteetan. Otsailean Santa Eske berezia izan zuten Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran, Aitor Sarriegi eta Haritz Mujika bertsolariekin, koplatan aritu ziren eta Usarrabi abesbatza eta Juan Tapiaren ikasle diren trikitilariak izan zituzten lagun. Ane Labakaren eta Beatriz Egizabalen *Erradikalak gara* lanak ere izan du lekua Asteasun eta Xabi Paya eta Bernado Atxagak gainera, Pello Errotaren eta Mikaela Elizegiren aro historikoak, sormen klabeak eta gizartea ezagutzera emateko hitzaldia eta solasaldia izan zuten. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren txanda ere izan denez sailkapen faseko lehen saioa eta irailetik aurrerako saioen aurkezpena ere bertan egin zituzten. Bertsoen kantaldia ere izan zuten, Pe-

llo Errotaren eta Mikaela Elizegiren bertsoaldien aukeraketa egin zuten eta Eñaut Agirrek abestuko zituen, Imanol Kamio piano jotzailearen eta Aitor Atxega gitarra jotzailearen laguntzaz.

Unitate didaktikoa

Ekitaldien artean bada bereziagorik: *Transmisiotik nortasuna berreraikitzen* unitate didaktikoa. Pello Errota herri eskolan egin zuten eta Aitor Atxega irakaslearen esanetan «hemendik aurrera, eskolan bi urterekin sartu eta hamabirekin atera bitarte, gure ikasleek, hiru edo lau aldiz behintzat Pello Errotaren inguru lanketa egingo dute». Unitatea «txikia, motza eta praktikoa» dela esan zuen.

Bestelako egitasmoak ere egon dira urte honetan eskolan: *Pello Errota bizitza bere alabak kontua* liburuan agerturako bertsoak kantatzeaz gainera, horietan oinarritutako antzerkitxoak eskaini zituzten Literatur Astearen barruan, eta eskolako ekitaldi guztietan izan dituzte presente Pello Errota eta Mikaela Elizegi.



Beñat Gaztelumendik jantzi zuen bigarrenez, Gipuzkoako txapela. JOSU ARTUTXA

Iguaran, finaleko eskualdeko ordezkaria

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea pasata Tolosaldeko sei bertsolari aritu ziren lehian; Iguaranek bosgarren egin zuen

Asteasun aurkeztu zuten irailean Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Pello Errota eta Mikaela Elizegi go-goan hartuta aurkeztu zuten, izan ere txapelketan aurtzen, bi asteasuarrak omendu nahi izan dituzte. Hasieran eta bukaeran izan zuten protagonismoa, aurkezpenean aipatzeaz gain, Donostia Arenan abenduaren 14an izandako finalean bi sari banatzeko ardura izan baitzuen Mikaela Kortajare-nak, Mikaela Elizegi bertsolariaren bilobak. Kantua ere uztailean aurkeztu zuten eta Don Inorrez musika taldeak izan zuen sintonia osatzeko ardura.

Eskualdeko sei bertsolarik hasi zuten iraileko lehia, baina maiatzean hasi zen sailkapen fasea. Lehen fase horretan 84 parte hartzailetatik 34k eskuratu zuten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako txartela; tartean, Haritz Mujika asteasuarrak, Iñigo Gorostarzu berastegiarak eta Unai Mendizabal zizurkildar-rak. 34 bertsolari horiei, 14 batu zitzaizkien, duela lau urteko txapelketan sailkatzea lortu zutenak, gutxienez, finalaurrekoetara iritsita. Talde horretan ziren, Oihana Iguaran amasarra, Mikel Artola alegiarra eta Beñat Iguaran amasarra. Final-zortzirenetan kantatu zuten guztiek, Oihana Iguaranek izan

ezik, 2015eko finalean kantatu zuenez, zuzenean final-laurdenetan sartu baitzen lehian, Alaia Martinekin batera.

Sei bertsolari horiekin batera, txapelketan parte hartu zuten eskualdeko beste sei lagunek. Gai jartzaile taldean aritu zen Imanol Artola, Iker Iriarte eta Ion Zaldua; eta epaile taldean, berriz, Mikel Beloki, Felix Irazustabarrena eta Zigor Leunda.

Sailkapen fasea amaituta, irailaren 14an Oñatin hasi zen txapelketa eta Donostian bukatuko zen hilaren 14an. Eskualdean bi saio jokatu ziren: irailaren 15ean Amasa-Villabonan bata, eta abenduaren 1ean Tolosan bestea, finalaurrekoetan azkena izan zena.

Oñatin hasi zen beraz, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eta bertan Haritz Mujika asteasuarrak eskuratu zituen puntu gehien. Amasa-Villanonan izan zen hurrengo saioa eta bertan, Beñat Iguaran amasarrak lortu zuen garaipena. Laugarren final-zortzirenean, Zumaian, parte hartu zuen Berastegiko Iñigo Gorostarzu *Etxordek* eta laugarren egin zuen. Haritz Mujikak eta Beñat Iguaranek saioko lehenak izan zirenez final-laurdenetan kantatzeko eskubidea zuten, baina Etxordek ondorengo hiru bertso saioetako puntuen zain egon behar izan zuen. Eta azkenean, kanpoan geratu zen. Unai Mendizabal *Mendi* zizurkildarra izen zen zuzenean sailkatu zen eskualdeko beste bertsolarietako bat, Zumarraga-Urretxuko saioa irabazita, eta gauza bera lortu

zuen Alegiako Mikel Artolak Lasarte-Oriako saioan.

Hurrengo fasera hortaz, eskualdeko bost bertsolari aritu ziren: Haritz Mujika, Beñat Iguaran, Unai Mendizabal eta Mikel Artola, eta final-laurdenetan Oihana Iguaran gehitu zitzaizen.

Final-laurdenak

Urrian hasi ziren final-laurdenak eta lehen saioan izan ziren Unai Mendizabal eta Beñat Iguaran, hirugarren eta seigarren postuak eskuratu zituztelarik. Bigarren final laurdena Irunen izan zen eta Beñat Lizasoren puntuaketa bera eskuratu zuen Mujikak. Beñat Iguaran, berriz, Andoaingo saioko seigarren sailkatua izan zen, eta azkenean ez zen sailkatu.

Andoaingo saioan izan ziren final-laurdenetako lehen bi saioak, eta Eñaut Martikorena hernaniarrak eta Agin Laburu astigartarrak irabazi zituzten, hurrenez hurren. Eskualdekoei dagokienez berriz, final-laurdenetara sailkatu ziren bost bertsolarietatik hiruk osatu zituzten euren lanak. Iguaran eta Mendizabal Andoaingo saioan aritu ziren, Mujika berriz, Irunen. Oihana Iguaran dagokionez, Azpeitiko saioan eskuratu zuen Tolosako finalerdietako saioan aritzeko txartela. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren azken final-laurdena jokatu zen Azkoitian, eta Beñat Gaztelumendi izan zen puntu gehien bildu zituena.

Azkoitiko saioarekin amaitu ziren final-laurdenak eta azkenean Asteasuko Haritz Mujikak, Zizurkilgo Unai Mendizabalek eta Amasako Oihana Iguaranek lortu zuten aurrera egitea. Lehen biak erori ziren azkenean, eta finalean amasarra aritu zen.

Lehen aldiz, lau emakume eta lau gizon aritu ziren finalean kantuan, eta 6.000 bertsozale bildu ziren Donostian. Beñat Gaztelumendi izan zen onena, eta Agin Laburu bigarren. Oihana Iguaran amasarrak bosgarren postuan amaitu zuen txapelketa.

Zozketak hala erabakita, seigarren eserlekuan esertzea egokitu zitzaion Iguarani, eta ez zen eskualdeko ordezkari bakarra izan, izan ere, Ion Zaldua Brit billabonatarra aritu zen gai-jartzaile lanetan. Gaztelumendi, Laburu eta Iguaranez gain, Jon Maia, Nerea Elustondo, Alaia Martin, Beñat Lizaso eta Ane Labaka izan ziren finalean.

Natura eta artea uztartzeko jaialdia

Azken Muga jaialdia egin dute udan Zarateko pagadian; arte eszenikoak zein plastikoak eta kultura landu dituzte

Laugarren aldiz egin dute uda honetan Azken Muga jaialdia. Tolosaldea eta Nafarroaren artean dagoen Zarateko pagadian egin ohi dituzte ekitaldiak, eta natura zein kultura uztartzen dituzte. Aukera zabala eskaintzen du Azken Mugak eta aniztasuna da nagusi. Arte plastikoak, hitzaldi etnografikoak eta kulturalak, ikus-entzunezkoak, zinemagintza, musika nahiz ekitaldi herrikoiak izan ziren udan, Zarateko pagadian. Horrela, artistak, musikariak, bertsolariak eta dantzariak elkartu ziren bertan. «Kultura eta artea herritarrei gerturatzeko aukera ematen du, eta baita gure herriko kultur eskaintza aberastekoa eta Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko mugak haustekoa ere. Gure nortasuna balioan jartzen du», esan zuten antolatuileek aurkezpenean.

Euskal Herri osoko talde bat ardura-

tzen da Azken Muga antolatzeaz eta tartean egon da Migel Zeberio tolosarra ere. Alde artistikoa beste era batera gizarteratzea izan zutela helburu esan zuen eta nabarmendu zuen Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko harremana bultzatzeko aukera bikaina ere badela jaialdia.

Lau urteko ibilbidea oparoa eta zaila izan bada ere, bere lekua egiten ari direla esan zuen: «Ez gaude ohituta horrelako jaialdiak kontsumitzera, baina eskulturagileen artean, esaterako, bere lekua egiten ari da». Bidea egiten hasita dagoela eta Europako jaialdiekin harremanak lortu direla gaineratu zuen.

Askotariko ekitaldiak

Aurtengoan jaialdia irekitzeko txondorra piztu zuten eta uztailetik iraila bitarte bertsolariak izan ziren, Kolonbiako eta Euskal Herriko musika tradizionalak uztartzen dituen Radio Revolucion taldearen kontzertua, Kalus Baletaren txorimaloak egon ziren ikusgai, eta dantzak, antzerkiak eta musikak izan zuten lekua.



Jaialdia irekitzeko txondorra piztu zuten. JON MIRANDA

Antzez Motz irabazi du Txalo-Talo taldeak

Berrobi. Txalo-Talo antzerki taldeak Antzez Motz lehiaketa irabazi du bukatzeaz den urte honetan. Berrobiko antzerki taldeko bost kidek hartu zuten parte eta antzerki onenaren saria irabazteaz gain, zuzendari onenaren eta euskarazko obra onenaren sariak eskuratu zituzten. Berrobitarrek *Konplizeak* izeneko antzezlanarekin hartu zuten parte lehiaketan. Ana Goñi, Arantzazu Rodas, Oihane Bergara, Aloña Izagirre eta Ester Poveda ari ziren aktore lanetan, eta Mikel Agirretxe teknikari bezala.

Olentzaroren Basoa antolatu dute, bigarrenegoz

Tolosa. Iazko arrakastaren ondoren, Zumardia elkarteak hausnarketa prozesu bat izan du, eta proposamena berrituta, zabalduko dute Olentzaroren Basoa. Zumardia elkarteak ibilbide magikoa prestatu zuen, Juan Kruz Igerabideren *Eguberria* ipuina oinarri hartu, eta neguko solstizioaren bueltako usadio eta ohiturak euskal mitologiarekin lotuz. Horrela, bigarrenegoz bisitatu ahal izango da baso miresgarria.

Abian da Tolosaldeko Trikitixa Elkarteak

Tolosaldea. Eskualdean trikitilari asko badaude ere, saretuta ez daudela ikusita, egoera iraultzeko asmoz aritu dira Manex Torrealdai eta Maixa Lizarribar. Hauspotuz Tolosaldeko Trikitixa Elkarteak osatu dute aurtengoa, eta lehen ekitaldi moduan, Trikitixa Eguna ere egin zuten. Behar batetik sortu dute elkarteak, izan ere, eskualdean «herri askotan irakasten da trikitia, baina ikasleek ez dute elkar ezagutzen. Hortaz, afizio bera duten gaztetxo- en arteko harremanak sustatzea da asmoa».





Villabonak eta Amasak laurehun urte

‘Vagera herri bat’ ikuskizuna hartu zuen Olaederra kiroldegiak maiatzean; ehun lagunetik gora aritu ziren

Ekitaldiz bete dute urtea Amasa-Villabonan, izan ere 400 urte bete dira Villabonak eta Amasak bat egin zutela. Udalak, herriko kirol eta kultur eragileekin batera prestatu zuen urte osorako egitaraua. «Egitarau berezi hau gure identitate eta elkarbizitza sendotzeko antolatutako du» adierazi zuen Maite Izagirre orduko alkateak; «horregatik, bi ideia hauek lotzen dituen leloa aukeratu dugu: *2 herri, helburu 1*». Mertxe Garmendia Kultura zinegotziak egitarau «irekia» zela azpimarratu nahi izan zuen: «Herriko kultur eta kirol taldeen elkarpenetara irekia dagoena, eta baita herritarrenetara ere. Ideia nagusia gure kultura baliolan jartzea da, eta komunitate honetik dugun partaidetza sustatzea da». Horrez gain, Joxean Cubero Kultura teknikariaren lana goraipatu zuen.

Horiek horrela, lau buruhandi berri prestatu zituzten eta *Amasa-Villabona*, *iragana eta oraina* argazki lehia-

keta jarri zuten. Era berean, Tolosako, Orioko eta Loatzo Musika Eskolako musika banden kontzertua eskaini zuten eta Benito Lertxundi ere izan zen Villabonan.

Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera Amasa eta Villabonaren historia aztertuko dituen hitzaldiak antolatuko zituzten bestalde, eta Realeko gizonetako Arratzainen entrenatu zutenen.

Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertu baten egoitza bilakatuko zen ere Villabonako parrokia, eta Amasako baserri buruzko erakusketak etnografikoa ere izan zuten. Urrian urteurren borobila izanda ektialdi bat ere egin zuten, 1619. urteko urrian hartu baitzuten bi herriek bat egiteko erabakia. Bukatzeko, hilabete honetan bertan, gainera, Oinkari dantza taldearen emanaldi bana egon dira Amasan eta Villabonan.

Ekitaldi horien guztien artean zegoen ere *Vagera herri bat* ikuskizuna. Migel Zeberio tolosarrak zuzendu zuen Olaederrekako emanaldia eta ehun pertsonatik gora igo ziren ohol-tzara. mila urteko historia bildu zituzten ikuskizunean.

Leidorantzokia kudeatzeko lehiaketa arantzatsua

Tolosako aretoaren kudeaketak ika-mika sortu du; helegite bat medio, lehiaketa publikoa bertan behera utzi dute

Tolosako Udalak bertan behera utzi zuen azaroan Leidorantzokiko jarduerak kudeatzeko lehiaketa publikoa. Leidoraretoa kudeatzeko azken esleipena joan den maiatzean amaitzen zen, eta ordura arte kudeaketa egiten zuen Molatu enpresako kideek azaldu zuten, lehiaketa berri baterako deialdirik ezean, kontratuaren luzapen baten esperoan zeuden baina, azkenean, udalak abuztuan egin zuen publiko Leidorren ardura hartzeko lehiaketa berria. Ordea, pleguko baldintzak irakurtzen hasi, eta «aurkeztu ere ezin» zutela egin ikusi zuten. Horiek horrela, Molatuk salatu zuen gaur egun Gipuzkoan enpresa bakarrak betetzen dituela eskatutako baldintzak eta pleguak baztertzailak zirela. Egoera horren aurrean, lehiaketako pleguei errekurtsioa jartzeko erabakia hartu zuen Molatuk abuztuan, eta zain geratu ziren lehiaketako epea bukatu arte. Azkenean, azaroaren 12ko datarekin iritsi zen Kontratuen Inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoaren ebazpena, udalaren lizitazioa bertan behera uztera behartuz.

Egoera honen aurrean Tolosako Udalak esan zuen ez dela egia pleguak baztertzailak direnik eta baldintza horiek betetzen dituzten hiru enpresaren proposamenak jaso zituztela; objektibotasun osoz aritu direla ere esan zuen; eta udal teknikari baten profesionaltasuna zalantzan jarri zutela eta udalak babes «osoa» eman zion teknikariari. Udalak argitu zuen era berean, esleipena erabaki bitartean Leidorreko kudeaketa ezin go duela Molatuk egin: «Legearen arabera, denbora horretan ezinezkoa da egungo kudeatzaileari kontratua egitea tarte horretarako». Erantzun honen harira, Molatuk udalak jarrerara «zinikoa» duela esan zuen eta gaineratu zuen legea betetzeak ez duela esan nahi justiziatik ari direnik, «ezta tolosarrentzat zerbitzu onenak bermatuz ere».



Tolosaldeak azken urteotan hartutako mobilizazio jendetsuena izan da, Martxoaren 8koa; Trianguloan amaitu zen manifestazio jendetsua. I. TERRADILLOS

ZAPALKUNTZEN BIDEGURUTZETIK, AURRERA

Aurtengo greba feminista iazkoaren egonkortze eta berrestea besterik ez da izan; 'Heteropatriarkatu kapitalistari planto!' leloaren pean, hainbat errealitate eta bizitzaren borrokak irudikatu nahi izan ditu mugimendu feministak.

Iazko greba feministak utzitako aztarna bizi-bizirik izan da 2019an barrena ere, eta mugimendu feministak oso garaiz iragarri zuen, aurtengo Martxoaren 8ko deialdiaren nolakotasuna: egun osoko lanuztea.

Aurreko urteko mobilizazioetatik pauso kualitatibo bat eman nahi izan dute aurtun, eta ez soilik deialdian; baita datozen urteetan mugimendu feministak hurrengo urteetara begira esku artean izan litzakeen erronka nagusienak erdigunean jartzeko saiakeran ere.

Modu horretan, Tolosaldea bera ere

urte hasieraz geroztik aritu da lanean, M8ari begira herritarrak aktibatzeko. Herriz herriko egitarauak osatzearekin batera, Tolosaldeko Asanblada Feministak 28 herrietako emakumeak bildu zituen urte hasieran eta, besteak beste, M8a iragartzeko bizikleta martxak eskualdea zeharkatu nahi izan zuen, inauterien atarian.

Behin Emakumeen Nazioarteko Eguna iritsita, bizikleta martxa biderkatu, eta Tolosaldeko emakumeen plantoa irudikatu zuen kotxe karabana erraldoiak, eskualde osoa josiz. Alegialdea, Ibarraldea, Villabona-Aiztondo eta Tolosa bat eginik, klaxon hotsek eta bozgorailuek bete zituzten errepideak.

Hitzzorduetan hitzorduena, ordea, eguerdiko mobilizazioa bilakatu da, 2019ko Martxoaren 8an. Tolosan hitzordua egina zuten eskualdeko emakume guztiek, eta aurreikuspen guztiak gainditu zituen mobilizazioak. *Bizitzak erdigunean* leloari tinko eutsi, eta aspaldiko urtetan Tolosaldeak ikusitako manifestazio jendetsuena osatu zuten adin, belaunaldi, jatorri eta herri

desberdinetako emakumeek, haserre bezain hunkituta.

Haserre, egunero-egunero zapaltzen dituen sistemaren aurka kalera atera behar izateagatik. Eta, hunkituta, eskualdean emakumeak adina errealitate eta zapalkuntza egonda ere, guztiak hitzordu berean bat egin, eta manifestazio buruak eta artean amaiera ez zenak bat egin zutelako.

«Mundua geratu dugu», hala oihukatu zuten, egunaren amaieran, Tolosaldeko Asanblada Feministako bozeramaleek, egoerak gain hartuta, eta iazko grebatik aurtengorako zubiaren sendotzeaz jabetuta.

Laugarren olatua deitu nahi dio zenbaitek, eta 2019ko greba feminista marea bizi bilakatu da, olatu hori aparez jostera bidean. Aurtun *Heteropatriarkatu kapitalistari planto! Bizitza erdigunean* leloak hartutako indar metatzea, beste hitz batzuen aterkiak eramango du 2020an, eta mugimendu feministak laster iragarriko ditu xehetasunak, gainera.



TOLOSALDEKO ASANBLADA FEMINISTA

‘Euskara eta Feminismoa’
hitzaldi zikloak arrakastaz
hartu du urte amaiera

Menderakuntza bat baino gehiagok bat egiteak, leiho bat baino gehiago eskaintzen ditu munduari begiratzeko, eta norbera baino zapalduago dauden errealitatez jabetzeko. Hala uste dute Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek, eta abiapuntu horretatik heldu da, Tolosaldera ere, *Euskara eta Feminismoa: bidegurutzea elkargune* hitzaldi zikloa.

Tolosaldeko Asanblada Feminista-

ren eta Galtzaundi Euskara Taldearen elkarlanetik, bat egin dute euskalgintzak eta feminismoak, eta eskualdeko txoko guztietara iritsi nahi izan dute, saioen bitartez. Horrela, hizkuntza eta genero menderakuntzen ardatzean, lau hitzaldi izan dira entzungai.

Proiektuaren sustatzaileena izan zen lehena, Tolosan: *Euskaltzaletasu-*

na eta feminismoa, ahalduztzeko elkargunea eskaini zuten Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek, bi mugimenduak batera ekiteko ataka ezin hobean daudela azpimarratuz. Jaime Altunak, berriz, datu zaparrada batekin lagundu zion, Villabonan, *Euskara eta generoa* gurutzatzen direnean hitzaldiari, hizkuntzaren transmisio feminizatua erdigunean jarritz.

Historiari errepasoa eman zion Saioa Iraolak, erresistentziatik erronketara pasatuz, Ibarako *Euskara eta emakumeak, genealogia feminista* bat hitzaldian. Amezketak hartu zuen azken hitzaldia, Itziar Gandariasen eskutik, eta norbere gidoitik ateratzera deitu zituen entzuleak, *Generoa eta hizkuntzen elkargunea* eraikitzen saioan.

Zikloa mugimendu feministaren hizkuntza praktiken inguruko mahai inguruak itxi zuen, gatazkari beldurra galtzeari fokua jarritz.



Zikloaren aurkezpen prentsaurrekoko irudia, Tolosako Trianguloko plazan. I. URKIZU

AMAIA ARRANZ TOLOSARRAK MARIE SKLODOWSKA-CURIE BEKA JASO DU

Europar Batasunak ikerketa eta berrikuntza sustatzeko eskaintzen duen Marie Sklodowska-Curie bakarkako beka jaso du, arkeobotanikari tolosarrak. Gizateriaren lehen ogi hondarren ikerketan lanean jarraitzeko aukera eskaini dio bekak Arranzi, orain arte aurkitutako ogirik zaharrenak 14.400 urte dituela frogatu baitzuten ia.

ALEXIS PANTOS



IZARO ZUBIRIA IBARGURENEK NEIKER SARI BEREZIA IRABAZI DU

Maiatzean banatu zituzten CAF-Elhuyar sariak, eta Lizartzan bizi den gazteluarrak lehen sektoreari dagokion sari berezia jaso zuen, *Esnea ekoizteko, bertako ala kanpoko proteina erabili?* lanarengatik. Epaimahaiak 70 lan jaso zituen, eta dibulgazio lanen artean hautatu zuten Zubiriarena.

ATARIA

TOLOSALDEAN ERE, SALDA BADAGO

Historikoak izan dira, joan den azaroko Euskal Herriko Jardunaldi Feministak. Durangok hartu zuen hitzordua, eta Tolosaldeko hainbat ordezkari izan ziren hango hausnarketa eta eztabaiden lekuko; intersektionalitateak eta feminismo dekolonialak protagonismo berezia hartu dute, jardunaldietan eta haien ondotik. Irudian, eskualdeko ordezkarietako zenbait.

TOLOSALDEKO ASANBLADA FEMINISTA



Hitzetan ere bizi dira erasoak

Altzoko B-Eroa talde feministak festa giroko eraso matxistak salatzenko pankarta argigarriak prestatu zituen uztailen, saninazioen bueltan.

Eskualdeko parrandetan emakumeek jasan behar izan dituzten zenbait iruzkin bildu, eta herria pankartaz bete. Horixe izan da, 2019an Altzoko B-Eroa talde feministak antolatutako ekintzak deigarrienetako bat.

«Zer zare, reglakin?», «Hain arropa gutxikin urduri jartze nazu», «Muxu bat emate baiazu, utzikoizut juten», «Jazte zeate ta...», «Joe ze zakarra, hola eztezu mutilik lortuko», «Hoi errapek», «Zu zeanakin zure mutilai adarrak 10.000 aldiz jarriko zenizkion», «Susa al zare?». Esaldi horiek eta beste zenbait bildu, eta saninazioen bueltan gorpuztu zuten ideia, gero sare sozialetan zabaltzeko. Eskualdeari ezezik, Euskal Herriari ere buelta eman zioten irudiek.



Ilunpean ere 'Klika'

21. Korrikak gauez zeharkatu du Tolosaldea, 2019an; euskarari *Klika* eginez, milaka eskuk helarazi zuten lekukoa Gasteizera, eta Maialen Lujanbioren mezuak euskararen sistema eragilean klika egitera deitu zuen euskal komunitatea.



TOLOSA. 'Ataria' -ko harpidedunen lekukoa eraman zuten, Flori Martinez alegiarak eta bera alabek eta bilobek.



BERASTEGI. Herriko gazteenek grinaz itxaron zuten lekukoa, Berastegiko Korrika Txikian.



ALEGIA. Gauez zeharkatu zuen eskualdea.



TOLOSA. Aldarri sahararak ere korrika.



IRURA. Anoeta eta Irura lotu zituen Korrika Txikiak, eta txikienek ere eraman zuten lekukoa.



TOLOSA EUSKAL SOZIOINGUISTIKA JARDUNALDIA TOPIC-EN

Soziolinguistika Klusterak antolatuta, Euskal Soziolinguistika Jardunaldia hartu du Topic zentroko areto nagusiak, aurtan. Joan den urrian izan zen eta, nagusiki, 2018ko Euskaraldia izan zuten aztergai, jardunaldiko egitarauaren barrena. Besteak beste, Pello Jauregi, Uxo Anduaga, Paula Kasares, Josu Amezaga eta Garikoitz Goikoetxea izan ziren hizlarietako zenbait, eta iazko esperientzia oinarri hartuta, 2020. urteko ariketa sozialari begira jarri ziren.



TOLOSA BIGARREN EUSKARABENTURA, TOLOSALDEAN

Iazkoaren moduan, aurtengo Euskarabentura espedizioak ere zapaldu ditu Tolosaldeko lurrak, uztaillean. Parte hartzaileak oinez heldu ziren Tolosara, eta Laskorain ikastolan euskararen erabilerari buruzko hitzaldia jaso zuten, Kike Amonarrizaren eskutik. Horrekin batera, Tolosaldea Tour turismo bulegoko Brian Cullenekin Tolosa ezagutu zuten, bisita gidatuan, eta, GEZKiko ikertzaileen laguntzaz, ekonomia soziala ere hizpide izan zuten.



TOLOSALDEA EUSKARAREN ETXEKO ERABILERAK GORA EGIN DU ESKUALDEAN

Tolosaldeko 28 herrien azken 35 urteetako datu soziolinguistikoak bildu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 2019an, 2016ko neurketak kontuan hartuta, eta eskualdeko ezagutza eta erabilera datuak eskuragarri daude, www.galtzaundi.eus webgunean. Ikerketaren arabera. Klean erabilera altuagoa da etxean baino, baina, hala ere, etxeok gora egin du, erdaldunen euskara eza-gutzak gora egin duelako. Tolosaldeko euskaldunak, berriaz, 33.868 dira.



TOLOSA KIKE AMONARRIZ, EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO LEHENDAKARI

2019ko irailean eskuz aldatu zen Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaritza, eta Kike Amonarriz tolosarrak jaso zuen, Elena Lakaren eskutik. Euskal Herriko euskara elkarten elkartea da Topagunea eta, horrenbestez, Amonarriz euskaltzale mugimenduaren aktibazioan ariko da aurrerantzean, herriz herri. Momentuan esku artean duten erronka nabarmenena 2020. urteko Euskaraldia da: entitate eta enpresetara joko dute.



ZIZURKIL MANUEL LARRAMENDI IKERKETA SARIA, URTZI REGUERORENTZAT

Filologo zizurkildarrak jaso du 2019ko Manuel Larramendi ikerketa saria, Manuel Larramendik eta bere obrak XVIII. mendeko idazle nafarrengan izandako eragina aztertzeko. Beka jaso eta gero, Reguerok urtebeteko epea izango du ikerketa garatu, eta haren ondorioak argitara emateko. 2017an argitaratutako doktore tesian, Urtzi Reguerok ukitu zuen gaia, baina ez zuen horretan sakondu. Orain, ikerlanarekin helduko dio erronka horri.



TOLOSALDEA TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA, ERREALITATE UKIGARRIA

Tolosaldeko Euskararen Mahaia eratze-ko konpromiso adierazpena gizarteratzeko ekitaldia egin zuten, Alegian, apirilean; euskara eskualdeko hizkuntza nagusi izateko, gobernantza eredu erreferentziazkoa eraiki nahi dute. Eskualdeko hizkuntza politika diseinatuko du gune horrek, eta udalak zein euskalgintza bat datoz helburu eta asmoetan. Orain, hori guztia egituratzeko formulazioen bila ari dira lanean.



EMAKUMEEN

UNEA
IRITSI
DA

Gure txapeldunen garaipen historikoa oroitzeko erretilua **ATARIA**ren eta **HITZA**ren eskutik.

ATARIKIDEEK

GAINERAKOEK

8€

12€



Salmenta puntua:

ATARIAren bulegoa: San Esteban 19, Tolosa

Zubimusu Ikastola, aro berriko lehen Kilometroak antolatzen



Zubimusu Ikastolak 2020ko Kilometroen logoaren, leloaren eta maskotaren aurkezpen jala egin zuen azaroan. LEYRE CARRASCO

Kilometroak jaia antolatzeko eredu berri bat prestatu dute Gipuzkoako ikastolek, lau urteko gogoeta prozesu baten ondoren. Parte hartzean oinarritutako festa nahi dutela azaldu dute, eta aro berriaren lehen festa, 2020koa, Amasa-Villabonan eta Zizurkilen eskolak ematen dituen Zubimusu Ikastola ari da antolatzen.

Eredu berria izanagatik, «Kilometroak ez da amaituko, indarberrituko baizik», Nekane Artola Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakariaren hitzak dira. Datorren urtetik aurrera Gipuzkoako ikastola guztien parte hartzea bermatuz, urte osoan zehar ekimenak hedatuko dira, eta Euskal Herriko eragile ezberdinekin batera, jaialdi txikiak antolatuko dituzte ikastolek urte guztian zehar.

Hala ere, urriko lehen igandean egin ohi duten jaialdia mantendu egingo dute, baina «dimentsio txikiagoan». Parte hartzaileagoa izan dadin, zirkuitua egin beharrean gune tematikoetan antolatuko dute festa eguna. Horrekin batera, orain arteko kontzertuen eskaintza mugatu egingo dutela jakinarazi dute.

Gaizka Ezeiza billabononatarra ari da koordinatzaile lanetan. Kilometro-

ak jaiak Zubimusu ikastolaren proiektua babesteko balioko duela dio, «baina ez bakarrik ekonomikoki, bestela ere bai. Herrira zabaltzeko baliatu nahi dugu eta herrian kohesioa bultzatzeko giltza izan nahi luke festa honek, herriko beste hezkuntza proiektuekin elkarlanean».

‘Korri, punpa, ttak’

Zubimusu ikastolako ordezkariak aurtengo Kilometroak jaiaren jaso zuten lekukoa, urrian, Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolako kideen eskutik. Ondoren, azaroan egin zuten 2020ko jaiaren aurkezpena. Bertan *Korri, punpa, ttak* leloa eta bere logoa aurkeztu zituzten, baita Pauxa maskota ere.

Hamaika pertsona eta taldek hartu zuten parte Villabonako Olaederra kiroldegian egin zen aurkezpen jaialdian. Pedro Mari Otañoren antzezpena egin zuten saioaren hasieran, eta Eresargi txiki abesbatzako kideek abestu zuten ondoren. Jarraian, Behar Zana pilota elkarteko Iñaki Otaegik hartu zuen oholta: errebote jokoaren berri eman zuen botaharria aurrean zuela, eta sakea atera zuen pilota jaurtiz. Hurrengo kilometroetarako Zubi-

musu ikastolak aukeratutako leloari egin nahi izan zien erreferentzia: *Korri, punpa, ttak*. Iragana, oraina eta etorkizuna irudikatu nahi izan dituzte, sakea atera eta pilotari joaz, etorkizunera begira jartzeko.

Oinkari dantza taldeko kideak ere ez ziren urrun ibili; errebotearen inguruan prestatutako koreografiak egin zituzten, saski eta guzti. Juan Kruz Igerabide idazle adunarrak ere hartu zuen parte ekitaldian, ipuin bat irakurri. Beldar izatetik pinpilinpauxa izatera pasatzeari buruzko ipuina irakurri zuen, izan ere, kilometroetako maskota berriari egin nahi izan zion leku: Pauxa maskota berria aurkeztu zuten. Ekitaldiari amaiera musikak eman zion.

Jaiaren aurkezpena egin eta egun batzuetara zabaldu zuten denda, Villabonako Altzin auzoko 3. zenbakian. Bertan aurki daitekeen eskaintza zabalda da: kamisetak, kirol-jertseak, zirrak, biserak, poltsak, txapelak, buffak, botilak, aterkiak, askari-zorroak, giltzatakoko edota eskumuturrekoak, besteak beste. Dendaren ordutegia honako hau izango da: astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.



Tolosako Babarruna

GOZA ITZAZU



www.tolosakobabarruna.eus

Tel.: 943 65 02 53

Tolosaldeko Ikasle Autodefentsa sarea sortu dute

Tolosaldean hainbat ikasleek Autodefentsa Sarea sortu zuten Orixe eta Laskorain ikastetxeetan 2018-2019 ikasturtean. Aurkezpen modura, ikasleen Tolosaldeko Autodefentsa Sarea sortu zutela adierazteko eta lehen ekinbide modura, prentsaurrekoa egin zuten urtearen hasieran Orixe institutuko bi ikasgairen ebulazio irizpideak aldatzeko asmoa azalduz.

«Autodefentsa sareak hezkuntza mailan funtzionatzaren duten antolakuntza formak dira, nahiz eta etorkizun batean langileriaren beste dimentsio batzuetara zein espazioetara zabaltzea ikusten den», azaldu zuten bere kideek. Bestetik, bere funtzioak ondokoak direla azaldu zuten: «Gure klasearen defentsa prestatzea, horrela, ematen diren erasoaren aurrean erantzun sistematizatu batekin erantzuteko gaitasuna lortuko baitugu. Beste alde batetik, erantzunak erreal-



Orixe inguruan eginiko protestaldia, otsailean.

ak izan behar direla ikusi dugu, hau da, sarean sinesteko frogak edukitzea, bere funtzionamendu egokiaren erantzun fidagarriak eskuratzeko... ezinbestekoa baita langile klasearen onespe-

na edukitzea. Eta azkenik, eskualdeko eta inguruko beste ikastetxeekin harremanak eta saretzeak ematea ere helburu edo funtzio garrantzitsuenetarikoa bat da».

Orixe institutuan ebaluazio irizpideak aldatzeko asmoz egindako ekin-tzetako bat greba deialdia izan zen, otsailean gauzatutakoa. Manifestazio egin zen instituturaino, eta eserialdi bat egin ondoren, Ertzaintza bertaratu eta manifestariak ikastetxearen eremutik kanpora bidali zituen. TAS-eko kideen esanetan, «borrokaren bilakaeraren hamaika eraso jasan behar izan ditugu ikasleok, horien artean, kanporaketak, errespetu faltak eta mehatxu ezberdinak, zeinak ikas komunitateko elkarbizitzaren izenpean ezkutatzaren asmo bakar baten erakusle argi diren: ikasleon jarduna blokeatzeko».

Bere aldetik, Orixe institututik «ulertezina» egiten zitzaiela adierazi zuten jasotako «eraso jarraitua»: «Ikastetxetik kanpo eta gure eskuetatik kanpo, talde antolaturen batek, ez dakigu hezkuntza publikoaren aurkako estrategia baten baitan edo ez dakigu zergatik, sistemaren aurka edo, eta argi eta garbi nor diren esan gabe, gainera. Eskatzen dituzten kontuak gure eskumenetik kanpo daude hein handi batean».

Alegia Herri Eskola izena aukeratu dute

Haur eta lehen hezkuntzako Alegiako ikastetxeak izen aldaketa izan du aurten: San Juan izena izatetik Alegiako Herri Eskola izatera pasa da. Guraso elkartetik jaso zuten kutsu erlijiosoa duen eta parekidea ez den San Juan izena aldatzeko proposamena. Eskolaren aldetik garbi ikusi zuten izenaren aldaketak eskola komunitate osoaren parte hartzea zekarrela bera-ekin. Ikasleak, irakasleak, gurasoak eta herritarrak ere inplikatu dituzte parte hartzean.

Alegiako Herri Eskola, Txintzarri, Intxurre, Iturri Zahar, Elorripe eta Aralarpe ziren amaierako fasera iritsi ziren izenak, eta bozketa eginda, Ale-

giako Herri Eskola izan da aukeratua. 2018-2019ko ikasturteko eskolako festan jakinarazi zuten izen berria.

Ordutegialdaketa

Alegiako Herri Eskolan urte bukaera baino lehen erabaki garrantzitsu bat hartu dute ikastetxearen antolakuntzarako. Ordutegia aldatzeko proposamena egin zen, 09:00etatik 12:30era eta 14:30etik 16:00etarako izateko. Arrazoietakoa bat Haur Hezkuntzakoek eta Lehen Hezkuntzakoek ordutegi ezberdinak zizutela eta horiek bateratzea nahi zuten.

Ordutegi aldaketaren erabakia hartzeko, bozketa antolatu zuten, eta gu-



rasoen %77ak parte hartu zuten. Horietatik %80k baieztatuaren aldeko botoa eman zuten eta %20ak ezetzaren alde egin zuten. Honenbestez, eta ondo bidean, ikasturte berrian ordutegi berria izango dute.

'Konpiteroa' eta kultur gizon alaia

Joxe Mari Gorrotxategi gozoglea hil zen ekainean; 2008an omendu zuen herriak

Gaixotasun luze baten ondorioz, ekainaren 11n hil zen Joxe Mari Gorrotxategi konfitero tolosarra. 1929ko erramu igandean jaio zen, eta lau anaietan zaharrena zen bera. 1957an, Mirentxu Peralesekin ezkondu zen, eta sei seme-alaba izan zituzten. Nagusiki lanbidean nabarmendu bazen ere, beste hainbat alorretan ere eragin handia izan zuena, hainbeste maite zuen bere jaioterrian, Tolosan.



Eta euskal kulturaren ere bere lekutxoa irabazi zuen. Joxemiel Barandiaran, Jorge Oteiza eta Mikel Laboa sortzaile-

ekin maiz elkartu zen. Herriari denbora ugari eskaini zion. Zinegotzi izatea proposatu zioten, eta alkateorde izatera heldu zen. Euskarazko haur eskola eta txistu eskola jarri zituen martxan, eta kale garbitzaileei soldata igotzea lortu zuen.

2008an omenaldia egin zion udalak. Egun berean, Tolosako kultura eta gastronomia bizitza islatzen zuten bere argazkiekin osatutako erakusketa bat inauguratu zuten.

Paper garrantzitsua izan zuen Tolosako Babarrunaren Kofradiaren sorreran, Gastronomiaren Euskal Kofradiako kofrade eta zuzendaritzako kide izan zen, urte luzez, Gastronomiaren Euskal Akademiako kide ere izan zen, bere sorreraz geroztik, eta Slow food erakundeko ordezkari ere izan zen. 2015ean, Ohorezko Maisu Gozogle izendatu zuen Basque Culinary Center-ek.

ENTZUTEN EZ DUTENEN AHOTSA ENTZUNARAZIZ

Gainditzen Tolosaldea–Goierriko Pertsona Gorren Elkartek antolatuta, X. Zeinu Hitzkuntzako Nazioarteko Zinema Jaialdia hartu du aurten ere Tolosak. Argentinako, Erresuma Batuko, Espainiako, Indiako eta Kataluniako hamalau film labur lehiatu ostean, onenaren saria David Elligtonen *Hope* filmak eskuratu du. Labur zine jaialdiko maskota berria ere aurkeztu dute aurtengoan. IRATI SAIZAR



Hiru urte eta erdiko espetxea bortxaketatik

Duela bi urte, Tolosako Kalderero eguneko goizaldean, 16 urteko emakume batek 20 urteko gizonetako salatu zuen, etxebizitza batean bortxatu egin zuela azalduz. Bada, abenduan egindako epaiketan, akusatuak onartu egin zuen Fiskaltzak egindako hiru urte eta erdiko espetxe zigor eskaria. Hasieran bederatzita urte eskatzen bazituen ere, azken eskarian ia sei urte gutxiago eskatu zituen. Espetxe zigorarekin batera, 15.000 euroko kalte-or-

daina eman beharko dio biktimari. Horrez gain, zigorra bete ondoren bost urtez egongo da zaintzapeko askatasunean, eta hamairu urtez izango du debekatua adingabeari hurbiltzea.

Fiskaltzaren salaketa idatziaren arabera, etxebizitzan zeudela, sexu harremanak edukitzen hasi ziren: «Salatzaileak akusatuari azaldu zion, ez zuela jarraitu nahi. 'Gelditzeko' eskatu zion, eta argi utzi zuen ez zuela jarraitu nahi, baina, ez zion kasurik egin».

Esleitu dute Frontoneko ostalaritza-zerbitzua

Tolosa. Orbela Taberna SL-k eta Sonia Tapiak lortu dute Beotibar frontoiko ostalaritza-erakinek jabetxe eta kafetegi zerbitzuen lehiaketa publikorako ustiapen deialdian puntuazio altuena. 30 urteetarako kontratua da, eta urtero, 33.600 euroko kanona ordaindu behar diote udalari. Eraberritze lanak aurreikusitako moduan joanez gero, kafetegi eta jabetxe zerbitzu eraberrituak, 2020ko San Joan festetan atarian irekitzea espero dute. 2018ko maiatzaren erabakiaren ondoren udalak eraikina eraberritu eta ustiaketa berrirako lehiaketa publiko abiaraztea.

IRURA HERRI BIZIA DELA ERAKUTSI DUTE

Irura Bizi elkarteak bere eguna ospatu du uztailaren 12an. Herri giroa sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko 2017an elkarte bat sortzeko prozesua abiatu zuten. Hala, antolatu dituzten ekitaldien artean, elkartearen eguna egin dute. Bisita antzeztua egin dute 1950. urte inguruko Irura ezagutu ahalizateko, eta afarian elkar-tu dira ondoren herritarrek.

ATARIA



BI PERTSONA HILIK HERNION IZANDAKO ISTRIPUAN

Urtarrilaren 9an istripua izan zuen hegazkin batek Hernio mendian, eta ondorioz, bertan zihaoazen bi pertsonak hil ziren. Portugaldik zetorren hegazkina, Bilbotik Donostiara burutzen ari zen ibilbidea eta Hernio puntan harkaitza jo zuen.

ASIERIMAZ



ESTETIKA TRATAMENDU AUKERA ZABALA

Ordutegia

Astelehena eta larunbata 09:00 -13:00

Asteartetik ostiralera 09:00 -13:00 eta 15:30 -19:30

Argibide gehiagorako deitu edo zatoz!

Nafarroa etorbidea 1, behea
943 968 993



Tolosa CF-ko bi talde nagusien kideak, Berazubi zelaian. I.G.L.

Urte historikoa Tolosa CF-ko futbol atalarentzat

Tolosa CF-ko futbol atalarentzat urte historikoa izan da. Bi talde nagusiek igoera lortu zuten denboraldi amaieran. Emakumezkoen taldeak lorpen historikoa egin zuen, lehen aldiz Euskal Ligatik gorako maila batean jokatzeari lortu duelako. 1. Maila Nazionalera igo dira, eta klubean eragin handia duela esan zuen Izaro Goenaga kapitainak: «Igoera hau lortzea oso berezia da Tolosa CF-n futbolearen aritzen diren neska guztiontzat. Futbolari gazteentzat gu erreferentzia bat gara, igoera historiko hori lortu dugunak, eta gu bezala bizitu zuten harmailetan».

Gizonezkoetan Hirugarren Mailara igotzea lortu zuten, ligan bigarren eginenez. Horrek beste sari berezia ekarri zuen, Errege Kopan jokatzeko aukera eman baitzuen. EAEko txapelaldun bihurtuta, Galiziako Pontellas taldeari irabazi eta Lehen Mailako talde baten aurka jokatzeko saria iritsi zen. Hau ere historikoa klubarentzat, inoiz ez baitzuen partida ofizialik jokatu maila horretako talde baten aurka. Zozketan Valladolid egokitu zitzaizen eta abenduan jokatu zen partida. Tolosak 0-3 galdu arren, festa nagusitu zen eta 1.600 zale elkartu ziren Berazubin partida jai giroan bizitzeko.



NEREA EIZAGIRRE, REALAREN TITULU BERRIAREN PARTE

Nerea Eizagirre tolosarrak Erreginaren Kopa irabazi eta historia egin du Realarekin. Gipuzkoan hainbat herritan ospatu zuten titulua, tartean Tolosan. Jende ugari elkartu zen udal-etxe aurrean eta Eizagirreraren izena oihukatu zuten bereziki. I. URDALLETA

Nagusia preferenten, kadeteak goi mailan

Zizurkil. Danena futbol klubarentzat urte berezia izan da. Talde nagusia erregional preferente mailara igo da lehen aldiz, eta kadete mailako mutilek historia egin dute, talde onenek jokatzaren dute Euskal Ligara igoz.

Periko Alonsori omenaldia Euskal Herria Txapelan

Tolosa. Euskal Herria Txapelaren finala jokatu zuten Realak eta Eibarrek Tolosako Berazubi zelaian. Partida hori baliatu zen Periko Alonsori omenaldia egiteko. Reala, Eibar eta Tolosa arteko loturak batzen dituen jokalaririk historikoak eman zion trofeoa finaleko irabazleari, Eibar taldeari.

Xabi Alonso, auzitegian eta Sanse entrenatzen

Ibarra. Madrilgo auzitegiak Xabi Alonso absolbitu egin du Ogasun Publikoaren aurkako hiru delitutatik. 2010, 2011 eta 2012an iruzur egitea leporatzen zioten Alonsori, eta fiskaltzak bi urte eta erdiko espetxe zigorra eskatzen zuen. Fiskaltzak epaitegiaren epaia errekurritu egin du. Bestalde, uztaillean Alonso Realeko bigarren taldearen entrenatzaile bezala aurkeztu zuten Zubietan. «Erronka hau ilusio handiarekin eramango dut. Reala egon naitekeen lekurik onena da», azaldu zuen entrenatzaileak.

Lauburu KE Ibarra berriro Kopako kanporaketan

Ibarra. Bigarren bukatu zuen liga areto futboleko Lauburu KE Ibarrrak. Ez zuen aukera izan igoera fasea jokatzeko, baina bai Kopako kanporaketa. Aurrekanporaketa San Juan taldeari irabazi zion, eta gero Bigarren Mailako Colo Coloren aurka galdu zuen etxean. Kadete mutilek, bestalde, Euskadiko Txapelketa irabazi zuten, eta Espainiako Txapelketa aurre fasea jokatzeko aukera izan zuten. Klubak antolatutako eta Belabietan jokatu zen. Hirugarren geratu ziren Lauburu Ibarrrakoak.



XAREAK IRURAN 100 URTE BETE DITUELA OSPATU DUTE

Xarea Irurara iritsi zela 100 urte bete dira aurten eta hainbat ekitaldi antolatuta dira mendeurrena ospatzeko. Horietako bat izan zen Munduko Txapelketetan aritu diren xarelariei eta Ametsa Pilota Elkarteari egindako omenaldia (argazkian). Emaitzei dagokionez, Joxi Lope-tegi herritarrek Mikel Funosasekin batera Iparraldeko lehen mailako liga irabazi du. **ATARIA**

Lau eta erdikoan, puntako postuetan

Jokin Altuna amezketarrak ezin izan du aurten bere bigarren txapela jantzi lehen mailako Lau eta Erdiko Txapelketan. Finalean 22-16 galdu zuen amezketarrak Nafarroa Arenan, eta aurreko urtekoan gertatu zen moduan, Ezkurdiak jantzi zuen txapela.

Promozioko mailan, Jon Ander Peñak irabazi zuen txapela, finalean Jon Alberdiri 22-15 irabazita. Aurten-goarekin hirugarren finala jarraian zuen tolosarrak, eta beste bietan irabazi ezinik geratu ostean, oraingoan txapelarekin itzuli zen etxera.

Miren Larrarte bidaniarrak ezin izan zuen jantzi Lau eta Erdiko Laboral Kutxa Emakume Master Cup-eko txapela. Finalean 22-11 galdu zuen Miriam Arrillagaren aurka.

Ainhua Lakuntza, 2. binakakoan

Ainhua Lakuntza adunarrak Granadorekin osatu zuen bikotea Emakume Master Cup txapelketan, promozio mailan. Finala Osas eta Etxegarai bikotearen aurka jokatu zuten eta 18-15 galdu zuten.

Eneko Maiz, Super Prestigen

Eneko Maiz billabonatarra trinketeko eskuz banakako Super Prestige Txapelketan parte hartu duen lehen gipuzkoarra izan da. Lehen partida ira-

bazi ostean, bigarrena galdu eta ezin izan zuen final-laurdenetako ligaxkarako sailkatu. Super Prestige Txapelketa banaka jokatzeko den lehia garrantzitsuena da eta Iparraldeko pilotariak jokatu ohi dute. Billabonatarra urtarrean hasiko da Iparraldean jokatzeko den trinketeko afizionatuen lehen mailako txapelketan. Bestalde, Munduko Kopan txapeldunorde izan zen, urrian.

Emakume Pilotarien Elkartea

Laurogei pilotari federatu inguruk, tartean eskualdeko hainbatek, sortu dute aurten Emakume Pilotarien Elkartea. Uztailean egin zuten elkartean aurkezpena Azkoitian, pilotarekin duen harreman esanguratsua eragatik. Maider Mendizabal anoetarra elkartearen lehendakariordea da, eta egitasmoa sortzearen arrazoia azaldu zuen: «Azken hiru-lau urteetan, eskuzko Master Cup txapelketa dela eta, badirudi gizartea konturatu dela neska pilotariak badaudela, nahiz eta hainbatek urteak daramatzagun frontoietan». Mendizabalek gaineratu zuten, «orain mugimendu hori egonik, ikusten genuen aukera gurea emakumeen pilotaren egitura benetan itxuroso bat egiteko eta duintasuna emateko».

Orain arteko posturik onenak Rojorentzat

Iraupen eskia. Imanol Rojo eskia-tzaile tolosarrak Munduko Txapelketan inoiz lortu duen posturik onena eskuratu du, 40. eginez skating modalitateko 50 kilometroko proban. Munduko Kopako Davosko iraupen eskiko proban, berriz, 27. egin du, orain arteko posturik onena.

Irati Lakunza zortzigarren, Europako Txapelketan

Hegats igeriketa. Irati Lakunza tolosarrak zortzigarren egin du Europako Hegats Igeriketa Txapelketan, orain arteko posturik onena. Bestalde, 200 metro ur azaleko proban eta 100 metro eskafandran, Espainiako errekorrak hautsi ditu.

‘Arria V.a’-ren marka, Hernio tarteko

Herri kirolak. Ibarran bizi den Xabier Orbegozo *Arria V.a* erreizidarrak marka berezia egin du: Azpeitian 20 kanaerdiko ebaki, Hernio tontorrera igo, Tolosara jaitsi eta beste 20 kanaerdiko ebaki, gutxira 4 ordu eta 49 minututan.

Alegian Elorri-Aldapa saskibaloit taldea sortu dute

Saskibaloia. Elorri-Aldapa saskibaloit kluba abian jarri dute Alegian. Oraingoz mutilen senior taldea osatzeko aukera izan dute, eta aurrera begira nesken senior taldea jarri nahi dute martxan. Bestalde, Gaizka Maiza ibartarrak Urrezko LEB ligako Leyma Basket Coruña taldearekin bi urteko hitzarmena sinatu du.

Euskal Herriko Zirkuitua Eneko Gurrutxagarentzat

Mendi duatloia. Eneko Gurrutxaga amasarrak lehen aldiz irabazi du Euskal Herriko Mendi Duatloien Zirkuitua. Azken proba, Adunakoa, irabazi ondoren lortu du sailkapeneko lehen postua. Horrez gain, bigarren urtez, Mendi Duatloien Euskal Herriko Txapelketa irabazi du elite mailan.

Arrospide, munduko txapeldun

Iraitz Arrospide billabonatarrak irabazi zuen 50 kilometroko Munduko Txapelketa, Brasoven (Errumania). Real Sociedad taldeko korrikalariak distantzia horretan estreinakoz parte hartu zuen, eta 2 ordu, 47 minutu eta 41 segundo behar izan zituen 50 kilometro egiteko. Lorpenaren ondoren, omenaldia jaso zuen Arrospidek herrian, irailean bertan.

Billabonatarren berezko distantzia maratoia da, eta bere ametsa proba horretan 2020ean Tokion izango diren Olinpiar Jokoetan parte hartzea da. Hain justu, gutxieneko marka lortu zuen Valentziako Maratoian, 2:10:59ko denborarekin, baina horrek ez dio ziurtatzen Tokiorako txartela, selekzio bakoitzetik hiru joaten baitira eta zazpi hautagai baitaude. Arrospide protagonista izan zen Behobia-Donos-



Iraitz Arrospide, Valentziako Maratoian. ENEKO GARIN

tia lasterketan. Bera zen faboritoetako bat proba irabazteko, baina azkenean bigarren amaitu zuen, iaz bezala. Hori bai, bere marka hobetzea lortu zuen, 1.01.01ean ezarriz.

Uranga eta Zeberio, Espainiako txapeldun

Espainiako 20 urtez azpikoen atletismo txapelketan eskualdeko bi atletek urrezko domina lortu dute. Tolosa CF-ko Ander Uranga anoetarrek 200 metroan eta Atletico de San Sebastian taldeko Erkki Zeberio tolosarrak luzera jautsian. Urangak ez zuen lortu gutxigatik Europako Txapelketara joatea 200 metroko proban, baina bai 4x100 metrokoan Espainiako selekzioarekin. Bosgarren amaitu zuten.

Paula del Pozo, bikain kroscan

Tolosa CF Atletismo taldeko Paula Del Pozo alegiarrak kros denboraldi bikaina egin zuen. Jubenil mailako Euskadiko Txapelketa irabazi zuen, eta horrez gain, maila berean, Zornotzako eta Donostiako krosak irabazi zituen.

Ane Iturria, bigarren Munduko Txapelketan

Ane Iturria mendi lasterkari tolosarrarentzat orain arteko denboraldi onena izan da aurtengoa. Lorpen nabarmenena Munduko Txapelketan, junior mailan, proba orokorrean egingako bigarren postua, eta kilometro bertikalean egindako laugarrena izan da. Bestalde, Espainiako Kopan lehen postua lortu zuen, tartean hainbat proba irabaziz, eta Espainiako Txapelketan proba orokorrean bigarren izan zen eta bertikalean lehena. Kontuan hartzekoa da bere lehenengo urtea izan dela junior mailan.

Ion Azpiroz berastegierra ere nabarmendu da aurtun mendi lasterketetan. Goierriko Bi handiak proba irabazi zuen eta gainera 10.01.51ko denborarekin lasterketaren marka berria ezarri zuen. Bigarren Goar Lopetegi ibartarra izan zen. Azpirozek Euskal Herria Mendi Erronka ere irabazi zuen.

Eskualdeko T3T mendi lasterketa Hassan Ait Chaou billabonatarrek irabazi zuen gizonezkoetan, eta emaku-

mezkoetan Sarah Ugarte tolosarra hiruugarren izan zen. T2T proban Ibai Madina berrobitarra izan zen irabazlea gizonezkoetan, eta emakumezkoetan bigarrena izan zen Laiane Arrospide tolosarra. Proba horietako antolatzailleek zein parte hartzaileek omenaldia eskaini zioten mendi lasterketan goi mailan aritu den Iker Karrera amezketarrari, probetan parte hartzeari utzi ondoren. Amezketan ere udalak eta herritarrek egin zioten omenaldia.

Iñaki Olano altzotarrak aurtengoan ere hainbat mendi lasterketa irabazi ditu: Eltxotrail, Triku Trail, Zaldibia-ko Mendi Lasterketa, Goizutrail, Segura-Zerain, Gabiriako Leharrei lasterketa eta Larraul-Hernio-Larraul. Horietako hainbat probetan lortutako puntuei esker, Goierriko Trail Kopa irabazi du. Sarah Ugartek ere hainbat lasterketa eskuratu ditu: Garingo mendi lasterketa, Berastegiko Negu Trail, Urretxuko UZ Trail eta Trail Mllos de Riglos.

Amondarain eta Larrarte, UCİko bigarren mailara

Txirrindularitza. Naia Amondarain ibartarra eta Eukene Larrarte tolosarra UCİko bigarren mailan ariko dira datorren denboraldian. Sopela Women's Team taldeak fitxatu du Amondarain. Aurtengoan ibartarrak, besteak beste, Europako eta Munduko txapelketetara bai errepidean eta bai pistan joatea lortu du junior mailan. Leongo Eneicat Pecafer taldearekin ariko da Larrarte errepideko lasterketetan. Pistako denboraldia Gipuzkoa Ogi Berri taldearekin egingo du. Aurtengoari dagokionez, errepidean Europako Txapelketan izan da, eta pistan absolutu mailan Espainiako Txapelketa zein Kopa irabazi zituen omniumean.

Lara Arruabarrenak, bi trofeo gehiago binaka

Tenisa. Lara Arruabarrenak bederatzi titulu irabazi ditu bere ibilbidean binaka. Aurtun azken biak poltsikoratu ditu: Seulgoa Tatjana Maria alemaniarrekin batera, eta Karlsruhekoea Renata Voracova txekiarrekin batera.

Eskualdeko hiru arraunlari Kontxako bandera lortuta

Arrauna. Kontxako Bandera lortu dute eskualdeko hiru arraunlarik: emakumezkoetan, Ohiane Iraola tolosarrak Oriorekin irabazi du, eta gizonetzkoetan Jon Lizarralde eta Endika Lopez tolosarrek Hondarribiarekin. Tolosaldea traineruak laugarren amaitu du ETE liga, eta Colindresen bandera lortu dute.

Ligako txapeldun eta entrenatzaile berria

Eskubaloia. Tolosa CF Eskubaloiak 1. Maila Nazionaleko liga irabazi eta igoera faserako sailkatu zen. Malagan jokatu zuen eta ezin izan zuen igoera lortu. Entrenatzaile postuan aldaketa izan dute: Alex Noguesek azken bost urteetan izandako postua hartu du Jon Iraolak. Ibartarra taldeko jokalaria ohia da eta azken urteetan harrobi-ko taldeekin aritu da lanean.

Ibon Mugertza, Europako txapeldun surf egokituan

Surfa. Portugalen, Viana do Castelo, jokaturako Europako Surf Egokituko Txapelketan, Ibon Mugertza tolosarra izan da lehen postua lortu duena AS I kategorian.

Tolosa CF-ko gimnasten maila handia Espainiakoan

Gimnastika erritmikoa. Tolosa CF gimnastika erritmikoko junior taldeak Espainiako Txapelketan bi zilarrezko domina jaso ditu. Aitane Goikoetxea, Ismene Agirre, Ane Alustiza, Mara Herrera eta Onintza Sukia dira taldekideak. Senior taldeko gimnastek lehen maila mantentzea lortu dute, eta Gipuzkoarren Saria jaso dute Kirolgailan. Iratxe Martin, Irati Xiaoyan Agirre, Saroi Eskisabel, Anne Lezea eta Joane Zugasti dira taldekideak.

Irene Caminosek Espainiako Txapelketa irabazi du

Bike Trial. Irene Caminosek bosgarren amaitu du sailkapen orokorrean Munduko Kopan. Munduko Txapelketan zazpigarren egin du, eta ezin izan du finalerako sailkatu. Europako Txapelketan bosgarren egin du, eta Espainiakoa irabazi.

Artola eta Aranburu, Romaniacseko podiumean

Muturreko enduroa. Errumaniako Red Bull Romaniacs muturreko enduro proba garrantzitsuan, zilarrezko mailan, Josu Artola amezketarrak txapelketa irabazi du, eta Alberto Aranburu tolosarrak hirugarren egin du.

Ibon Gonzalez atleta gogoan herri lasterketetan

Atletismoa. Ibon Gonzalez Tolosa CF Atletismoko kidea ondoezak jota hil zen irailean, 42 urte zituela. Jaiotzez zizurkildarra, Tolosan bizi zen azken urteotan. Hainbat omenaldi jaso ditu herri lasterketetan, eta Zizurkilgo Gau Krosari bere ize-na jarri diote.

Javier Goenaga hil da istripu baten ondorioz

Txirrindularitza. Javier Goenaga Oriako Txirrindulari Eskolako presidente ohia hil egin zen ekainean. Txirrindulari baten aurka kolpea hartu zuen Javier Goenagak Tolosan, Jose Mari Anzaren Oroime-nezko txirrindulari lasterketan bo-luntario lanak egiten ari zela. Ospitalera eraman zuten eta bi egun ondoren hil zen bertan.

Angel Ugarte 'Txantxangorri' hil da

Pilota. Angel Ugarte *Txantxangorri* pilotari ohia hil da 93 urte zituela. Brasilen jaioa, txikitan Villabonara etorri eta bertan bihurtu zen pilotari. 17 urterekin egin zen profesional, eta Miamin, Mexikon eta Habanan ibili zen pilotari.



R.P.S. 175/15 I.L.G.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIÓPTICAS

%30eko deskontua
bilduma berriko eguzkitako betaurreko
GUZTIETAN

50 € edo gehiagoko PVP-ko eguzkitako betaurrekoetan aplikatzen da. Galdetu optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezin da beste eskaintzekin batu.

www.multiópticas.com

f t e

UDAK BUSTIRIK

Neguaren hotzetik begiratuta, urrun geratzen dira udako festak, baina, edonola ere 2020koak gertuago ikusten dira. Herri txikiek badakite gozatzen.



LARRAUL



ALTZO



BERASTEGI



IKAZTEGIETA



ALBIZTUR



BALIARRAIN



ORENDAIN



1990

GASTROTEKA

TOLOSA

Berria, originala,
ezberdina...



Gure karta
ikusi
al duzu?

Baietz pikatu...



Falta direnak gogoan,
Urte berri on!



San Bartolome plaza, 2 · Ibarra
943 67 11 38
ibarra.eus · udala@ibarra.eus



PANELFISATM
lantaldearen ekintza

